


Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko otsailaren 1a / 571. zenbakia



Argentina lur jota

Argentinan bizi den mondragoetar baten ikuspuntua

ORAIN ETA HEMEN: UDALEKO OSOKO BILKURA/7 • KIROLA: IBAN GALANI ELKARRIZKETA/10

Etxeko lanak egitea guztion ardura da.



Emakumeen tailerretan:

- Elektrizitatea
- Iturgintza
- Brikolajea
- Pintura
- Automobilen mekanika

Gizonen tailerretan:

- Joskintza
- Lisatzea
- Sukaldaritza
- Garbiketa

Astearte eta ostegunetan, 18:00etatik 20:30etara
Otsailean hasi eta maiatzera arte • Matrikula: 12 €.

Izen ematea: Emakume Saila 943 79 41 39 edo
Gazte Bulegoan 943 77 00 65 telefonoetara deituta.
Azkeneko eguna: Otsailaren 13a.

Antolatzailea:




ARRASATEKO UDALA

Emakume Saila ■



Ateak zabalduko dizkizugu



HAUXE IRAKURTZEN ZABILTZA? ORDUAN GURE MEDIOAK ERAGINKORRAK DIRA.

EGIZU PUBLIZITATEA GEUREAN. DEITU 943 71 23 91 TELEFONO ZENBAKIRA.

KALEINKESTA/ Ze pentsetan jatzu toxikomanuei lagunketako zerbitzu bat zeure auzuen jartie?



MARIASUN ERRAZKIN
Etxekoandrie



ROBERTO HERNÁNDEZ
Langillie



DANIEL DELGADO
Langillie



LEIRE DE PAZ
Langillie



MANUEL SILVAR
Langillie



FRANCISCA GIL
Langillie

Nunbaiten egon biherko die. Inork ez ditu gure inguruen, baiñe biharrezkue da. Eta Bilboko Zamakola auzuen pasau dien iskanbillek lotsagarriek pentsetan jat.

Ondo pentsetan jat, edo txar to ez behintzet. Hala eta be, ondo pentsetie komeni da. Azken baten, kontu horretan gauza mordue dagoz tartien. Baiñe Bilbon pasau dana larregikue pentsau jat.

Lagunketako bada, ondo dagoela pentsetan jat, bai horixe. Toxikomanuei lagunketako zerbitzu horrek estruktura ona badauko, ez litzake problemarik egon biher.

Gure auzuen holako zerbitzu bat jartiek ez litzakit askorik inportauko. Bilboko Zamakola auzuen auzotarrek egindako protestak, barriz, larregikue pentsau jat.

Ze esango dutzut, ba! Ez da gauza atsegiñe izengo, baiñe nunbaiten egon biherko die. Problemie badago, zelabait konpondu biherko dogu. Ezin dutzogu bizkarrara emun.

Neri ondo pentsetan jat, baiñe beste auzotarrei, ikusi egin biher! Holako zerbitzuen alde nago, holako gauzak biher die. Baiñe Zamakolakuek beste bertsio batzuk dittue...

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ZELAN APURTU DUTE? Aste honetan, honako irudia aurkitu dugu Monterron jauregiaren sarreraren ondoan. Ezagun da herri honetan gauza asko apurtzen dituztela, baina buruari buelta asko eman diogu, eta ez dakigu ziur hori zelan apurtu duten. Eskuz eginez gero, indar handia beharko da. Baliteke, asteburuan, norbait autoa edonola aparkatu gura izatea eta... Ba, egin kontu!

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /8

KIROLA /10

KULTURA /14

Gesalibarko jaiak

Santa Ageda egunean hasi eta domekara arte, Gesalibarren auzoko jaiak ospatuko dituzte.

Arrasateko xake taldea

Arrasateko San Andres xake taldeak puntu bi behar ditu liga irabazi eta Euskal Ligara pasatzeko.

Santa Agedako koruak, gertu

Urtero moduan, Santa Ageda bezperan, koruak kantuan eta dirua jasotzera irtengo dira Arrasaten.

ASTEKO DATUA

66.505

ZENBAKIAK 30.000 EURO UTZI DITU ARRASATEN

Joan den egubakoitzeko ONCE erakundearen zozketak 30.000 euroko saria utzi zuen Mondragoen. Portaloian kupoiak saltzen dituen Pilar Jiménezek eman zuen saria.

BESTE EKESANA

Unibertsitateak badu bere plan estrategikoa, Mendeberriz izenekoa; eta uste dut nahiko finkatuta

daudela egungo unibertsitate baten berezitasunak. Hezkuntza egokitu egin behar da gero eta azkarrago aldatzen den gizartera. Unibertsitateak profesionalak osatu behar ditu, oinarri orokor on batekin, gaitasun teknikoarekin; eta, arlo teknikoetik aparte, taldean aritzeko gai izan behar dute, lan egin, erabakitzeko ahalmena eta lidergo dutenak eta, gainera, beti ikasteko prestatuak. (...) Ikasleak prestakuntza klasikoarekin hasten dira, pixkanaka, benetako arazoei erantzuteko prestakuntza estrategiara igarotzen dira. (...) Erronken haritik, oso garrantzitsua da unibertsitatearen eta enpresen arteko harremana".

INAXIO OLIVERI
EUSKALDUNON EGUNKARIA/02-01-24

HERRITARREN BERBAK/ Antxon Mendizabal



Porto Alegreko Foro Soziala

Urtarrilaren 31 eta otsailaren 5a artean egingo da Porto Alegreko bigarren Forum Soziala. Ez da izango orain gutxi Arabiar Emirerri Batuetan egindako munduko merkataritza erakunde boteretsuen gailurra. Ezta ere globalizazio kapitalistaren aurka Seattlen, Washingtonen, Pragan, Davosen edo Genoan bezala, protesta sozial eta politikoa bideratzeko. Alderantziz, Porto Alegreko gailurrak globalizazio kapitalistaren aurka proposamen teorikoak eta praktikoak bideratzeko ideien elkartruke erraldoia gauzatu du. Jaso nuen triptikoan makina bat informazio dago horren inguruan. Datorren urtean gaiaren inguruan liburuxka bat ateratzeko asmoa dute. Biba zuek!

Ez da kasualitatea Munduko Forum Soziala Porto Alegren eta Rio Grande do Sul-en egitea. Brasilgo estatu guztien artean bi ezaugarri azpimarratzen dute estatu horren berezitasu-

na. Lehena, Lanaren Alderdiak hainbat erakundetan duen eragin handia, estatuan hark gobernatzen duelarik. Bigarrena, Lurrik Gabeko Nekazariaren Mugimenduak duen indarra. Rio Grande do Sul estatuan bi faktore hauek konbinatzen direla estatu demokratikoagoa eta parte hartzaileagoa bihurtuz.

"Porto Alegren herritarrek ekonomia soziala, solidarioa eta parte hartzailea bultzatzen dabilta"

Porto Alegren, 1999az geroztik, estatu osoan aurrekontu parte hartzailearen esperientzia ezartzen da. Aurrekontu parte hartzaile udal asanblearen, lurralde asanblearen eta herritarren

forumaren bitartez gauzatzen da. Hiritarrek botere publikoa kontrolatzen dute. Adibidez, 270.000 herritarrek osatzen duten 148 herri asanbleek eta 22 lurralde asanbleek erabaki dute estatuko 2000ko behar nagusien sailkapena. Milurteko berriarekin "herritarren diagnostiko parte hartzailea" egiten ari dira, aurrekontuaren esperientzia osatuz. Ekonomia soziala, solidarioa eta parte hartzailea bultzatzen dabilta.

Arrasate

Otalora lizentziaduna z/g
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran
ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai
MAKETAZIOA
Alex Azkarate
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaiñarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren
LEGE-GORDAILUA
55-1124/88
ISSN
0214-4654
TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 1
A. Ruiz. Maala 31.....943 79 14 09

ZAPATUA, 2
S. Español. Araba etorb. 17.....943 79 18 65

DOMEKA, 3
A. Azkoaga. Ferrerías 1.....943 79 15 15

ASTELEHENA, 4
M.F. Azkoaga. Iturriotz.....943 79 79 99

MARTITZENA, 5
M. Corcuera. M. Aranbarri 1.....943 79 22 26

EGUAZTENA, 6
J.A. Irizar. Erguin 11.....943 79 12 39

EGUENA, 7
L. Amezua. Santa Marina 32.....943 79 09 74

TELEFONO JAKINGARRIAK

ERITXEAK
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Igalatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

LARRIALDIAK
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

ANBULATORIOAK
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan egun osoa

Arrasate
Astelehenetik egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara

- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak 943 03 53 11
- Ikuskatzailea. 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

ANBULANTZIAK
Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

ERTZAINZIA
Arrasate 943 79 71 99

SUHILTAILEAK
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

MATXURAK
Urak (Udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
. 943 79 78 44

GARRAIOAK
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

HIRUGARREN ADINEKOENDAKO ETXEAK
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuaren egoitza 943 79 81 57

MONTEIRON LIBURUTEGIA
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	San Andres eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)	Santa Teresa eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:00 San Isidoron (euskaraz) 12:00 Santa Teresaren (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	Santa Marinako eliza Jaiégun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz) Domeka 12:00 (gaztelaniaz)

OHARRAK

ZINEKLUBA AMAIA ANTZOKIAN
Eguenetako zinekluba hasiko da datorren astean. Hilaren 7an, 21:30ean, *Alaska.De* filma izango da Amaia Udal Antzokian.

ERAKUSKETA HARRESIN
EBEL elkarteak Juan Gorritiren *Baserriko Argia* erakusketa ekarri du Harresi Aretoan. Otsailaren 15era arte egongo da.

GESALIBARKO JAIK
Otsailaren 5ean, 18:30ean, Santa Ageda meza izango da, auzoko koruak abestuta. 8an, egubakoitza, 19:00etan, suziri jaurtiketa. 20:30ean, auzo afaria Jentil Ola elkarteak, Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariekin; eta dantzaldia, Txinparta taldearekin. Zapatuan, 11:30ean, gazte-txoendako jolasak, tailerrak eta buruhandiak. 12:00etan, hildakoen aldeko meza. 14:30ean, abesbatzak Santa Ageda abestuko du. 22:30ean, Txinparta. Domekan, 12:00etan, meza Gesalibar eta Garagartzako koruarekin.

TXALAPARTA IKASTAROA
Gazteria Sailak eta Txalaparta taldeak ikastaroa antolatu dute otsailaren 15etik maiatzaren 17ra arte. Informazio gehiago gura izanez gero, jo Gazte Bulegora.

AEDrenAGENDA

ARRASATE LEHIAKETAK
Abian daude XV. Arrasate Lehiaketak. Ipuina, poesia, komikia, bertso-paperak, euskalki grabazioak eta irrati erreportajeak. AEDra bidali otsailaren 15a baino lehen.

DEBAGUNeko EGUTEGIAK
Debaguneko egutegiak salgai daude AEDn.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibal, Ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10 URTEARRASATEN

Iturbide egoitza berrituko dute

Iturbide egoitzan, hemendik hila-betera eta 44 milioi pezetako aurrekontuarekin, egokitze lanei ekingo diete. Aurrekontuaren %75 Diputazioaren kontu joango da eta gainerakoa, Udalaren kontu. Bestela, Iturbiden sartzeko zain dauden lau lagunek itxaron egin beharko dute.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Txatxurra"



Hagina.
-Txatxurtxuak miñ emuten dotsue ezta, biotza?
- Ointxe dauzka txatxurrak urtetzen.


GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA Egubakoitza, 25	1°C
MAXIMOA Astelehena, 20	20°C
ASTEKO EURIA (l/m²)	1,2 L
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 23	16°C 9°C 1,2 l/m ²
Eguena, 24	11°C 4°C — l/m ²
Egubakoitza, 25	16°C 1°C — l/m ²
Zapatua, 26	16°C 4°C — l/m ²
Domeka, 27	19°C 14°C — l/m ²
Astelehena, 28	20°C 3°C — l/m ²
Martitena, 29	17°C 1°C — l/m ²

Bergaroko San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Santa Ageda nagusi astelehenean

Erguin herri eskolako umeak etorriko dira astelehenean Santa Ageda kantua abestera. Goizeko hamaiketan hasiko dira 8 eta 12 urte arteko umeak irradian Santa Ageda kantatzen.

Ludopatiak ere egingo dugu berba, goizeko hamarretan. Horretarako, Mertxe Mendia izango dugu lagun, hark laguntza eskaintzen die ludopatia arazoak dituztenei. Musikaren tartean, berriz, Txuma Murugarren abeslariaren *Hegazkinen arima* diskoa izango dugu.

Jurgi Cristobal eta Radio Mondragon

Mexikoko tximinoen eta garai batean herrian zegoen irratiaren gaineko elkarrizketak izango dira entzungai zapatuan eta domekan. Jurgi Cristobal albaitari arrasatearra Mexikon da, tximinoen gaineko ikerketa egiten. Juan Bautista Agorria, berriz, Radio Mondragoneko teknikari eta esataria izan zen 60ko hamarkadan. Umearen loaren gaineko elkarrizketa errepikatuko dugu, eta Gorka Etxabe eta Maider Osarekin albistegien gainean berba egingo dugu.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
09:00 Albistegia
09:30 Igo autobusera
11:30 Albistegia
12:00 Musika
14:00 Errepikapena

ASTELEHENA
21:00 Maiuskulaz idatzitako Rock-a

MARTITZENA
21:00 Hi bizi hadi

EGUAZTENA
21:00 Hitz eta pitz
22:00 Pottokatzen

EGUENA
21:00 Gailurretik

EGUBAKOITZA
20:00 Azkenberri.com
21:00 Draxtor
22:00 In session
23:50 Asteko elkarrizketak

ZAPATUA
10:00 Musika klasikoa
11:00 Asteko elkarrizketak
23:50 Asteko elkarrizketak

DOMEKA
11:00 Asteko elkarrizketak

ASTEABIHITZETAN

Gripe epidemia Arrasaten

Euskal Herrian gripe epidemia dago, eta Arrasaten ere nabaritu da hori. Azken aste honetan, gripeak jota jende asko gaixotu da, eta gehienbat umeei eragin die epidemiak. Medikuen esanetan, gripea geroago eta ugariagoa izaten ari den arren, birusa ez da bereziki erasokorra, hortaz, gripe normala dela esan daiteke. Horri aurre egiteko, betiko erremedioak erabiltzeko gomendatzen dute medikuek: ohean egon, likido asko edan, lurrinak egin... Hurrengo asteetan, gaixo gehiago egongo ei dira, baina lasaitasunerako deia egin dute osasun arduradunek.

San Felipe Apostol Kofradiak Biltzar Nagusia

Martitzenean, San Felipe Apostol Kofradiak Biltzar Nagusia egin zuen. Elkarteak ehun urte bete ditu eta dagoeneko etorkizunari begira jarri da. Gaur egun, 12.200 bazkide ditu kofradiak, eta horietatik, 300 bat lagun gerturatu ziren martitzenean Amaia Udal Antzokira. Biltzar Nagusia egin aurretik, minutu bateko isilunea egin zuten, hildako kideen alde. Jesus Mari Arizmendiarrietak, Kofradiako presidentek, urteko diru sarreraren eta balantzearen azterketa egin zuen, eta, horrez gain, presidenteordea eta idazkaria izendatu ziren. Aurrerantzean Aitor Galdos izango da presidenteordea, eta idazkaria, Jose Ignacio Elortza.

Kale istiluak egubakoitzean

Joan den egubakoitzean, kaputxadun batzuek su eman zioten Kontzezino kalean dauden bi edukiontziri. Gertaera eguerdiko ordu bata eta ordu biak bitartean izan zen. Suaren ondorioz, bi edukiontzi horiek kiskalita geratu ziren, baina ez zen ezbeharririk gertatu. Arrasateko udaltzaiek, hasiera baten, errepidea moztea erabaki zuten, harik eta sua itzali arte.



Euskararen Plan Estrategikoa, aurrera

Arrasateko Euskararen Plan Estrategikoa martxoaren 30ean jarri zen abian. Herriko 14 elkarte ari dira Plan Estrategikoaren gaineko eztabaidan parte hartzen, eta zapatuan batzarra egin zuten Udalako Ingurugiro Eskolan. Bidea luzea da, eta helburua, euskararen normalizazioa.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Zer daukagu jokoan?

Joan den egubakoitzean, JONCEk hirurehun mila euroko saria utzi zuen Arrasaten. Duela gutxi, Aretxabaletan Loteria Primitiboko sari handi bat tokatu zen, eta gogoan dudanaren arabera, Bergaran ere Loteriako sari handiena salgai egon zen, inork erosi ez eta, tamalez, dirua berriz Madrilera bueltan joan zen arren.

Apustu eta diru joko kontuetan ibarrean sasoi onean gaudela dirudi, baina ezagun da Euskal Herrian halako jokoetan urtero diru mordoak gastatzen dela. Hortaz, zelanbait, jokatzeko diru guztiaren zati txiki bat bueltatzea edo gure artean gelditzea ez litzaiguke hainbeste harritu behar.

Dena dela, jende askok amets egiteko joera handia

dauka, eta, orokorrean ibarrean diru gabezia handirik ez dagoen arren -bizitza oso garestia bada ere-, gehiago gura izaten dugu. Betiko kontua!

Neuri ez zait halako saririk tokatuko, oraindik ez, behintzat, ez dut-eta halakoetan jokatzeko. Bestalde, nire ustez, bailara honek dirua baino beste zerbaitek beharko luke: diruak ematen ez duen bizi kalitatea, egungo dinamikarekin eta joerekin bateratzea zaila dena.

ASTEKO IRUDIA



XABIER URZELAI

JENDE ASKO GERTURATU ZEN ENDOKRINOLOGIA IKUSKAPENAK EGITERA

Joan den martitzenean, arratsaldean, Lagun Aro Aseguruek eta Sanitas-ek endokrinologia arloko ikuskapenak egiteko unitate mugikor medikalizatua jarri zuten Seber Altube plazan. Zerbitzu hori doan emateko, Madrilatik furgoneta urdin bat etorri zen, eta Francisco Javier de Castro medikuak eta Rafa-

el Márquez García mediku laguntzaileak egin zieten azterketa gerturatutako guztiei. Jakin-min handia piztu zuen zerbitzuak, eta jende asko gerturatu zen odoleko kolesterol maila, gorputzeko koipe maila eta tentsioa neurtzera. Positiboa, hortaz, Lagun Aroren eta Sanitas-en ekimena.

M

MEMESA

**Industria
hornidurak**

Tel. 943 71 24 25

**UGARAN
jatetxea**

Garagartza auzoa

Tel: 943 79 76 58

ARRASATE

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50

AGR
García Ripa
ERREFORMAX S.L.

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behe (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta aulkiak



ELKARRIZKETA

LUIS EZKURRA/ARGENTINAN BIZI DEN MONDRAGOETARRA

“Argentinak baliabide ugari du, eta uste dut bospasei urtean altxatuko dela”

UBANE MADERA

Argentinari begira dago mundua azkenaldian. Garai batean indartsua izan zen herri baten gainbeheraren lekuko. Horrelakotan ohi den moduan, herritarrak izaten dira kaltetuenak. Eta ez dute, gainera, batere etorkizun garbirik. Egoera latz horren berri zuzena jakin guran, Argentinan bizi den mondragoetar batekin izan gara berbetan. Hura Luis Ezkurra da. Gazte-gazte zela joan zen Argentinara, apaiz. Gero, apaizgoa utzi eta han geratu zen bizi izaten, Buenos Aires hiriburuan, 28 urtetik 65 urtera arte metalgintzan lanean. Gabonetan Mondragoera etorri zen, senideak bisitatzeraz; eta Argentinako egoeraren okertzea ikusita, itzulerara atzeratzea erabaki du:

Itzuliko zara Argentinara?

Bai, ditudan gauza guztiak, nahiz eta gutxi izan, hantxe ditut. Ea zerbait salbatzea lortzen dudan!

Ikusten zenuten krisi gogorra bazetorrela?

Bai. Nik azken lau urteotan igarri nuen. Menem presidentearen azkeneko bi urteak oso eskasak izan ziren, atzeraldi ekonomikoa izugarria zen, langabeziak gora egin zuen, ez zuten Gizarte Segurantzarik ordaintzen...

Zeinena de errua?


Jeneralean, errua oso banatuta egoten da, baina Argentinan argi eta garbi ikusten da orokorrean funtzionarioak ustelduta daudela, polizia barne; eta, Menem agintalditik aurrera, botere judiziala ere usteldu zen. Menemek epaile gorenen kide kopurua seitik bederatzira handitu zuen, gehiengo bere aldekoa izateko, eta gura zuena egiteko.

Horrenbeste ustelkeriarekin eta horrenbeste langabearekin, errazena ez da bata bestearengatik aldatzea?

Hori da jendeak eskatzen duena. Jaun pribilegiatu horiek (funtzionarioek) hilero 15 eta 20 mila dolar irabazten dituzte. Eta guri, pentsiodunei, eta langile publikoei iaz, irailean, %13 jaitsi ziguten pentsioa eta soldata. %13ko jaitsierarik izan ez duten bakkarrak senatariak, diputatuak eta botere judizialeko kideak izan dira.

Konponduko da egoera?

Argentinak baliabide asko ditu. Egin behar duena da baliabide horiek ondo bideratu. Edozelan ere, gaur egun, jendea lur jota dago, ezkortasun handiarekin. Hori bai, Argentinaren alde esan behar da herritarren %100 alfabetatuta daudela, kultura han-



ARTXIBOA

“Argentinan argi eta garbi ikusten da funtzionarioak ustelduta daudela, polizia barne”

dia dago; zinean, artean... ikusten da; egunero daude hitzaldiak, antzerkiak... Baina esan beharra dago, era berean, argentinarak, berez, asko maite duela bere burua. Beti izan da horrela. Munduaren zilborra dela sinistu izan du. Orain ikusten ari dira hori ez dela horrela. Munduaren zilborra izateko lan handia egin behar da, eta ondo egin; ez da nahikoa garia, arraina edo petrolioak produzitzearekin...

Min handia egiten dizu “korrallitoak”?

Niri ez. Errentan emanda dudak etxebizitza baten errentari esker bizi haiz. Eta pentsioa garaiz ordaintzen didate.

“Argentinaren kanpo zorra adinako diru kopurua dago Argentinatik aterata”

Eta orain, Duhalde...

Hark esaten du euskaldunen semea dela, Iparraldekoa. Eta hauteskundeak izaten direnean, euskal etxeetara joaten da, boto eske. Nire ustez, gizonezko autoritario eta faxistoidea da. Buenos Aireseko gobernatu zuenean, emaztea Gizarte Gaietarako buru izendatu zuen, eta herritarren lagun egin ziren; lursailak oparitu zituzten. Jakina, baldintza batzuk betetzea derrigorrezkoa zen: alderdi peronistakoa izatea, familia izatea, ezkontzera derrigortzen zituen... Edozelan ere, boto kopuru hori segurtatuta zuen. Azken baten, horixe izan da peronismoak erabilitako bidea. Peronen

“Gaur egun, ez badago kanpoko inbertsiorik, Argentina gaizki ibiliko da”

garaian, Evitak opari ugari egin ziren behartsuenei, ospitaleak egin zituzten, umeak bereziki zaindu... Herria irabazi zuen. Garai hartan, Argentina aberatsa zen. Gauza mordo nazionalizatu zituzten: telefonoa, urak, elektrizitatea... Dirua gastatu egin zen. Hortaz, lan egin behar. Baina Peronek sortutako sindikatuak ez ziren oso langileak... Egoera okertu egin zen, eta militarrek altxatu egin ziren. Gero, Frondisi presidentea gobernau izan zen, baina, hiru urtera, hura ere bota egin zuten militarrek. Militarrek boterean egon dira 73ra arte. 1973an, hauteskundeak izan ziren eta peronistek irabazi zuten.

Gero, Peron etorri zen eta presidente hautatu zuten, 1974an hil zen arte. 1976tik 1983ra, berriro ere militarrek gailendu ziren, sekulako errepresioarekin. Eta gero, demokrazia etorri zen, eta demokraziarekin, Alfonsin. Baina Alfonsin oso idealista zen, ez zen praktikoa eta *stablishment* osoa kontra zuen. Izugarriko inflazioa izan zen, eta gobernua utzi behar izan zuen... Menem iritsi arte. Ekonomiaren egoera eskasas aspaldikoa da. Ustelkeria Peronen garaitik dator.

Duhaldek eutsiko dion edo ez gutxienekoa da. Nire ustez, hauek onena De La Rúa zen, itxaropen handiak nituen. Baina oso lotuta zegoen, alde guztietatik. Cavalho Ekonomia ministro izendatu zuen, eta hortik etorri da gainbehera, hondamendia. Bihurgarritasunaren alde egin zuen (peso bat=dolar bat); eta hori ezinezkoa zen, ez ginen lehia korrak, ezin genuen esportatu. Enpresak Brasilera alde egiten hasi ziren eta Argentinan oso gutxi geratu dira. Lan barik geratu gara, eta lanik ez badago, ez dago dirurik, ez dago janaririk. Argentinaren herria, berez, oso lasaia da; gaur egungo egoerara iristeko... hildako eta zauritu mordo izaten ari da.

Orain, ez diezue beldurrik militarrei?

Lagun talde bat elkartzen gara, tartean, armadatik erretiratuta dagoen teniente koronel bat etortzen da. Hark esaten du armadak ez duela ezer jakin gura. Zer hartuko dute, pobrezian dagoen herri bat? Hori bai, nik uste dut ikusi, herritarren arteko borrokak ikusiko ditugula. Peronismoak mota askotako jendea batu du (ezkertiar zein eskumakoak), eta pobrezia eta liskar handiak daude.

Zein da euskaldunen egoera?

Orokorrean ona; industria asko euskaldun emigranteen sendeak dira, hortaz, klase ertainean daude.

Zer egin beharko litzateke nazioartetik?

FMIk lepoa estutu dio Argentinari, baina, era berean, FMIk mailegu asko eman dizkio Argentinari, eta diru hori desagertu egin da. Uste denez, Argentinaren kanpo zorra adinako diru kopurua dago Argentinatik aterata (160.000-200.000 milioi dolar). Gaur egun, ez badago kanpoko inbertsiorik, Argentina gaizki ibiliko da. Baina baliabide ugari du, eta uste dut bospasei urtean altxa daitekeela. Hori bai, funtzionarioen “garbiketa” egin beharko litzateke eta sistema guttik behera aldatu.

Sei mozio landu zituen atzo udalbatzarrak ohiko bilkuran

UBANE MADERA

Garaia egitasmoa, Udaleko Hezkuntza Kontseilua eta sei mozio izan ziren berbagai, besteak beste, udalbatzarrak atzo egin zuen bilkuran. Mozioetan ETaren azkeneko atentatuak, herritarren aldeko manifestu bat eta Askatasunaren mozio bat landu zituzten.

Garaia egitasmoa dela-eta, arau subsidiarioen elementu batzuk aldatzeko proposamena aztertu zuten zinegotziek. Eta, Udaleko Hezkuntza Kontseilu arruntaren araudiari hasierako onespina ematea ere aztertu zuten.

Gaien artean, EAJk, EAK eta Askatasunak aurkeztutako mozioak izan zituzten eztabaidagai. EAK ETaren azkeneko atentatuak gaitzetsi zituen. ETari ekintza armatuak behin betiko uzteko ere eskatu zion eta gobernu espainiarrari euskal herritarren eskubideak onartzeko eta espetxe-legedia betetzeko eskatu zion. Gatazkaren konponbiderako bidea elkarrizketa dela ere adierazi zuen.

Bere aldetik, EAJk hiru mozio eta manifestu bat aurkeztu zituen. Mozioetan azaroaren 6tik urtarilaren 12a arte ETak egindako atentatuak gaitzetsi zituen. Bes-



ARTXIBOA

Besteak beste, gizakien eskubideen aldeko adierazpen instituzionala aztertu zuten.

etik, azkenaldiko ekintzen aurrean samina adierazi zuen eta ETari armak bertan behera uzteko eskatu zion. Elkarrizketa irekia ere eskatu zuen. Bestalde, "gizon-emakume guztion bizitzarako, askatasunerako eta segurtasunerako eskubideen aldeko adierazpen instituzionala" onartzea ere proposatu zion EAJk udalbatzarrari. Izenak esaten duen moduan, gizakion bizitzarako, askatasunerako eta segurtasunerako esku-

bideak bermatzeko eta eskubide horiek defendatzeko konpromisoa eskatzen zaio Udalari. Besteak beste, indarkeriaren erabilera gaitzesten dute, eta su-etena erabiltzen diote ETari. Gatazka politikoei irtenbidea emateko bide bakarra elkarrizketa dela nabarmentzen du.

Albiste hau idaztean batzarra egin barik zegoen, hortaz, ez dugu landutako puntuak onartu zituzten edo ez.

LABUR

Arrasateko eta Bergarako AEK-ko euskaltegiek matrikulazio kanpaina ireki dute

Arrasateko Erdu-AEK euskaltegiak eta Bergarako Akulu euskaltegiak euskara ikastaroak emateko matrikulazio kanpaina zabaldu dute. Izena emateko epea otsailaren 13an bukatuko da. Euskalduntze ikastaroak eta EGA ikastaroak emango dituzte. Hain justu, Bergaran, aste barruan, egunero daude EGA ikastaroak, arratsaldeetan. Mondragoen, berriz, zapatu goizetan izango dira ikastaroak, bost orduz. Orduetegi dagokienez, txandaka egiteko aukera ematen du AEK-k. Hau da, lantegietako txandakako orduetegiaren pareko orduetgia aukeratu ahal izango dute.

Urriari hasi ziren ikastaroak; orain, berriz, matrikulatzeko epea zabaldu dute, euskara ikastea gura dutenei aukera emateko.

Bestalde, Euskal Herriko AEK-k VI. Sagardo eguna ospatuko du Hernanin, otsailaren 2an. Euskal Herriko sagardoazale guztiak gonbidatu dituzte jaialdian parte hartzera.

Euskal Herriaren beharretara egokitutako hezkuntzaren aldeko ekimena egin zuten

Euskal Herriak Bere Eskola izeneko kanpaina aurkeztu zuten atzo Monterron Jauregian, iluntzeko zazpietatik aurrera. Azaldutakoaren arabera, bi dira hezkuntzarekin lotutako kanpaina horren oinarriak: batetik, "Hezkuntza sistema propio baten beharra mahai gaineratzea herri ekimen baten bitartez"; eta, bestetik, "hezkuntza sistemaren inguruan hausnarketa egiteko, ikasle, irakasle, guraso eta herritarrak batzea".

Kanpaina horren barruan adierazi dute leku eta modu askotan jakinarazi dutela "euskal hezkuntza sistema propioa izateko borondatea; eta, herri garen aldetik, hezkuntza sistema bat dago-kigula, guk geuk erabakitakoa, guk geuk kudeatutakoa". Hain justu, "Euskal Herriak aurrera egin dezan gakoetako bat hezkuntza dela" uste dute *Euskal Herriak Bere Eskola* Arrasateko Herri Ekimena taldekoek.

Horrekin batera, jakinarazi zuten "Euskal Herriko eskola gauzatzen ari direla" eta lan horretan batzeko eskatu diete ikasle, irakasle, guraso eta herritarrei.

Autobus urbanoa erabiltzeko dirulaguntzak egokituko ditu Udalak

UBANE MADERA

Autobus urbanoa erabiltzeko dirulaguntzak egokitzea erabaki du Udalak. Arrazoiak da urbanoaren prezioak ere aldatu egin direla eurora egokitzean. Orain, bidaia bat egitea garestiagoa da. Hori dela eta, Udalak erabaki du dirulaguntzak ere handitzea.

Joan den abenduan, Udalak autobus urbanoaren prezio berriak onartu zituen, eurotan. Aldaketaren ondorioz, 100 pezetatik 108ra eta 75etik 81era igo ziren salneurriak.

Orain, Udalak erabaki du beharrezkoa dela autobus urbanoa erabiltzeko ematen dituen dirulaguntzak prezio berrietara egokitzea. Eta, gainera, gorantz biribilduko ditu laguntza horiek. Horrela, %100 laguntza lortzen dutenek, hilerok, asko jota, 17 euroko laguntza jasoko dute. Hortaz, hileko 34 bidaia doan egin ahal izango dituzte (lehen, 33 bidaia ziren). Eta, %100 laguntza baino gutxiago jasotzen dutenek, berriz, 14 bidaia doan egiteko aukera izango dute (orain arte, 13 ziren). Hortaz, hileko eta pertsonako, asko jota, zazpi euroko laguntza jasoko dute.



ARTXIBOA

Otsailaren 28a baino lehen egin behar dira laguntzak jasotzeko eskaerak.

BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA

Urbanoa erabiltzeko dirulaguntza jaso gura dutenek otsailaren 28a baino lehen egin beharko dute eskaera, Udaleko Gizarte Zerbitzuetan. Horrek esan gura du martxoaren erdialdera arte gutxienez ez dela onartuko aurtengo onuradunen zerrenda.

Baina Gizarte Zerbitzuen batzordeari gehiegizkoa iruditzen zaio ordu arte itxaron beharra, eta Udalak erabaki du behin-behineko onuradunen zerrenda, behintzat, onartu egingo dutela. Gero, aurkeztutako eskaerak ikusi ondoren, behin betiko zerrenda onartuko dute. Hori bai, behin-behineko zerrendan agertzen den onuradunen bat ez bada behin betiko zerrendan agertzen, ordura arte erabilitakoaren zenbatekoa bueltatu egin beharko du. Behin-behineko zerrenda egiteko irizpidea: 2001ean bonoak erabili zituztenak, izan ziren bajak kenduta.

neko onuradunen zerrenda, behintzat, onartu egingo dutela. Gero, aurkeztutako eskaerak ikusi ondoren, behin betiko zerrenda onartuko dute. Hori bai, behin-behineko zerrendan agertzen den onuradunen bat ez bada behin betiko zerrendan agertzen, ordura arte erabilitakoaren zenbatekoa bueltatu egin beharko du. Behin-behineko zerrenda egiteko irizpidea: 2001ean bonoak erabili zituztenak, izan ziren bajak kenduta.



Osakidetzako erizainak protestan

Osakidetzan lan egiten duten erizainek protesta ekitaldia egin zuten eguaztenean, Eskualde Ospitalearen aurrean. Zuzena den berariazko osagarria eskatu diote erizainek Osakidetzari protesta horrekin. Lanpostu batzuek dituzten ezaugarri bereziak ordaintzeko ordainsari osagarria da berariazko osagarria. Ezaugarri berezi horien artean, zailtasun teknikoak, dedikazioa, erantzukizuna, bateraezintasuna, arriskua edo nekagarritasuna daude. Berariazko osagarria eskatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan egiten duten bosgarren protesta saioa da.

Cerrajerako torlojuak egiteko lantegiaren gaineko erreportajeak

UBANE MADERA

Cerrajerako torlojugintzako eraikinaren gaineko argazki eta bideo erreportajeak egingo dituzte. Eraikin hori 20ko hamarkadako da, eta, eraikina bota aurretik, industria arkeologiaren ikuspuntutik komeni da oroimenerako dokumentuak gordetzea.

Halaxe erabaki du oraingo aste-ko Gobernu Batzordeak. Kontua da Cerrajerako torlojugintza lantegian erabiltzen ziren makina eta prozesu batzuk oso zaharrak direla; industria arkeologiaren ikuspuntutik, zelanbait, gorde beharrekoak; hortaz, haien testigantza gordetzeko erreportajeak egingo dituzte: argazki eta bideo erreportaje bana, hain zuzen ere. Argazki erreportajea Juan Manuel Berrueta argazkilariak egingo du, 488 euroren truke (80.000 pezeta pasatxo); eta bideo erreportajea Dragoi Produkzioak enpresak, 556,8 euroren truke (90.000 pezeta pasatxo).

INDUSTRIA ERAKUSKETA

Bestalde, eta Cerrajeratik alde egin barik, Udalak egin gura duen industria erakusketa ere hizpide izan zuen Gobernu Batzordeak.



Cerrajerako torlojugintza lantegiaren testigantza gorde gura du Udalak.

Hain justu, industria erakusketarako museografia baliabideak K6 izeneko enpresaren esku uztea erabaki zuen. Horrek esan gura du K6 enpresa arduratuko dela erakusketaren eszenografiaz; edo, bestela esanda, erakusketan ikusgai izango diren elementuak modu txukunean ipintzeaz. Bi hilabete eta 96.000 euro pasatxo (16 milioi pezeta) izango dituzte lan hori egiteko; hortaz, udaberriko prest izango dugu indus-

tria erakusketa, eta, jakina, ahal bezain laster irekiko dute. Orain, industria erakusketan zein material egongo den erabakitze lanak egiten ari dira.

Besteak beste, makinak, argazkiak eta tresnak ikusi ahal izango ditugu. Guztiak, Arrasateko industriaren historiarekin lotutakoak. Burdin olen garaitik hasi eta kooperatibismoaren garaira arteko materiala izango da ikusgai.

Mikel Piedehierro arrasatearraren egoera salatu du Askatasunak

UBANE MADERA

Mikel Piedehierro arrasatearra estraditatu izan daitekeela salatzeke, prentsaurrekoa egin zuen Askatasunak martitzenean. Hain justu, Frantziako Estatuak hilabete eman die 17 euskalduni handik alde egiteko. Egoera horretan dago Piedehierro arrasatearra.

Askatasunak emandako datuen arabera, Frantziako Paueko Prefekturak hilabete eman zien hain bizi eta lan egiten duten hamazazpi euskal errefuxiaturik Frantziako Estatutik alde egiteko. Horrek esan gura du behin epe hori pasatuta (datozen egunotan bukatuko da) Espainiako polizia nazionalaren eskuetan utziko dituztela errefuxiatu horiek, nahiz eta "kasu gehienetan epaitegi espainiarrekin konturik ez duten". Hori dela eta, Askatasunak, batetik, derrigorrezko kanporatze horrek salatu zituen prentsaurrekoan; bestetik, kanporatu eta gero, poliziaren eskuetan bost egun iraun dezake bakartze egoeran, eta haien eskuetik torturak jasateko duten arriskua ere salatu zuten, "entregatua kartzelaratze beharrezkoa den autoinkulpazioa lortzeko"; eta, hiruga-



Piedehierro Frantziatik kanporatzeko arriskuan dagoela gogorarazi zuten.

rrenik, Frantziako gobernuari eskatu diote errespetu dezan euskaldunek Euskal Herrian bizi izateko duten eskubidea.

MOZIOA

Gai horrekin lotuta, atzo, eguena, mozioa aurkeztu zion udalbatzarrari Askatasunak. Bost puntutan, Frantziako gobernuari eskatu zioten kanporatzeak gerarazteko eta euskaldunak Euskal Herrian bizi izateko duten

eskubidea onartzeko; Espainiako gobernuari eskatu zioten "Giza Eskubideen aldeko hainbat elkar-tek behin eta berriz salatu duten torturaren erabilpenarekin buka" dezala. Eta, datorren zapatuan, otsailaren 9an, Arrasaten egingo den manifestazioarekin bat egiteko eskatu zioten udalbatzarrari. Edozelan ere, albiste hau idaztean osoko bilkura egin barik zegoenez, ez dakigu mozioa onartu zuten edo ez.

LABUR

Segi-k beste kanpaina bati ekin dio, besteak beste, gazteen kontrako errepresioa salatzeke

Segi gazte erakundeak beste kanpaina bat hasi zuen joan den egunean. Bi helburu ditu: batetik, gazteriaren kontrako errepresioa areagotu dela salatzea; eta, bestetik, Europar Batasunaren talde terroristen zerrendan Segi sartu izana salatzea. Kanpainaren barruan, kale bilkurak egingo dituzte eguenero; joan den egunean ere halaxe egin zuten, Arrasateko epaitegiaren aurrean. Horretaz gainera, egubakoitzean Borroka Eguna izan zen.

Bestalde, kanpaina horren barruan, otsailaren hasieratik aurrera, Segi-ko zenbait kidek gose greba hasiko dute Bruselan eta Iruñean. Eta, otsailaren 18tik 27ra bitartean, Borroka Astea izango da Euskal Herri osoan. Tartean, 22rako, greba deitu du irakaskuntzan: "Euskal Herrian gazteek jasaten ari garen eraso globalari erantzuteko". Segi-k emandako datuen arabera, aurtun, 300 bat gazte epaituko dituzte.

Arizmendiko informazio eta dokumentazio zentroetako arduradunak Burdeosera

Arizmendi Kooperatibako bost gunetako informazio eta dokumentazio zentroetako (IDZ) arduradunak Burdeosera izan dira urterrilean. Helburu bi lortzeko izan dira han: batetik, zentro horien funtzionamendua eta antolamendua ikusteko; eta, bestetik, informazio eta komunikazio teknologia berrien txertaketa liburutegietan zelan bidera daitekeen aztertzeke. Horretarako, Akitaniako irakasle guztien zerbitzura dagoen gun bat, Jean Moulin Lizetokoa IDZ, INSUPeko lantegi pedagogiko pertsonalizatuak eta informazio eta teknologia berrien txertaketa lantzen duten gun bat bisitatu dituzte.

Kontua da Arizmendiren barruan 6 eta 16 urte arteko hezkuntza lantzen dituzten ikastetxeek informazioarekin eta dokumentazioarekin lotutako proiektu bat abian ipini dutela. Batetik, informazio eta dokumentazio zentroak punta-puntako baliabide metodologikoak izateko; eta, bestetik, mediatekak eguneratzeko; eta, hirugarrenik, informazio eta komunikazio teknologia berriak gutiz txertatzeko. Hori egiteko ideia bila joan dira Burdeosera.



Santa Ageda jaiak Gesalibarren

Martitzenean hasi eta domekara arte, Santa Ageda jaiak ospatuko dituzte Gesalibarren. Martitzenean meza izango da, 18:30ean, eta auzoko abesbatzak kantatuko du. Egubakoitzean, 20:30ean, auzotarrek afaria izango dute; Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariak ere izango dira. Zapatuan, 11:30ean, gaztetxoendako jolasak izango dira; 12:00etan, auzoko hildakoen aldeko meza; 14:30ean, abesbatza irtengo da Santa Agedaren omenez, eta gauean, dantzaldia izango dute. Domekan, 12:00etan, meza izango da, Gesalibar eta Garagartzako abesbatzak kantatuta.



SAN BALEIXO JAIAK

Joan den asteburuan, San Baleixo jaiak ospatu zituzten Meatzerekan. Jaiak egubakoitzean hasi ziren, eta asteburuan barrena hainbat ekintza egin zituzten. Zapatu arratsaldean, gaztetxoendako jolasak izan ziren, eta argazki-ko zazpi gazte hauek lan dezente izan zuten sagarra jateko. Ezin esan ederto pasatu ez zutenik.

He pasa konatas! Zera modue hon lan ta lan ea? Gu batikanona etan para que enesuek epikas eta Aita Santua ikusi dupe eta Veleben saioarekin dipe. Bero astolehenante!

POSTA PRIORITARIA
Priority Mail

€ 0,62
VATICANO
CASA DEL VATICANO

TXIN ETA HARITZ ERROMATIK
GOIENA TELEBISTA
OTALORA UZENTRIANA 31
BOSSO ARRASATE (GIPUZKOA)
BASQUE COUNTRY (SPAIN)

P.1) = Ondo pasa aste hau!



ARRANO-KO SARIA

Arrasateko Arrano Elkartearen zozketa bereziko zenbaki saritua 1.516 izan da. Zenbaki horren jabea, eta, hortaz, zozketaren irabazlea Mikel González arrasatearra izan da. Besteak beste, kilo bat angula, lau kilo nekora, kilo erdiko zortzi txuleta, lau kilo otarrainska, erreserbako lau botila ardo eta lau botila txakolin irabazi ditu Mikelek. Aberastu ez da egin, baina afari ederra egiteko aitzakia eta generoa ez ditu faltan izango.

ITALIATIK ZUZEN-ZUZENEAN!

GOIENA TELEBISTAKO lankide bi Italian izan berri dira, baina lanera baino areago, oportetan joan dira. Handik bidalitako postalean argi eta garbi jartzen dute bidaiaren helburu nagusia Vatikanora joatea zela, errezatu eta euren arimak garbitzeko

asmoa zeukaten-eta. Aita Santua ikusteko intentzioarekin ere joan ziren, baina ez zuten lortu. Ez zieten utzi Vatikanon sartzen (zergatik izango da...), eta ez dugu uste askorik errezatu zutenik. Hala ere, eskerrik asko, Haritz eta Txin!

Eskoriatzan salgai partzelak eta etxebizitza adosatua

Promotoreak baimendutako agentzia bakarra

Udalatx Inmobiliaria

Tel.: 943 79 59 99
Faxa: 943 79 92 00
Maalako Errabala 27 behea-ekz. ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikari erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

LANDALUZE
HARATEGIA-URDATEGIA
ESPEZIALITATEA : ETXERO ODOLOSTEAK
ITURBIOTZ KALEA.7 TEL. 943 79 14 86
ARRASATE



JULEN IRIONDO

Mondragoeko San Andres xake taldeko jokariak, zapatuan jokaturako norgehiagoka baten.

XAKEA

Mondragoeko San Andres xake taldea, Euskal Ligaren atarian

Etxeko xakelariak bi puntu besterik ez dute behar Gipuzkoako Liga irabazteko

XABIER URZELAI

Gipuzkoako Ligako liderra, Mondragoeko xake taldea, txapelketa irabazteko puntu-puntuan dago. Mondragoetarrek Debara joan beharko dira asteburuan puntu bila. Bi puntu lortuz gero, Euskal Ligara!

San Andres xake taldekoak faborito argiak ziren denboraldi hasieran, eta Mondragoeko taldeak

pronostikoak bete ditu. Mondragoetarrek taula gainean eta bulegoetan izan dituzte aurkariak, baina gauza bi zituzten euren alde: alde batetik, federazioak jarritako zigorrak ez zuela inongo zentzurik, eta, bestetik, xakean eurak direla liga honetako trebeenak.

Azkenean, ez bulegoetan ez taula gainean ere ezin izan dute mondragoetarrekin, eta, Gipuzkoako Liga amaitzeko bi jardunaldi falta direnean, etxekoek bi puntu behar dituzte liga irabazi eta Euskal Ligara igotzeko txartela eskuratzeko.

naldi falta direnean, etxekoek bi puntu behar dituzte liga irabazi eta Euskal Ligara igotzeko txartela eskuratzeko.

HURRENGO AURKARIA, DEBA

Herriko xakelariak Deba izango dute hurrengo aurkari, eta puntu bi eskuratzen badituzte, txapelketa eskura izango dute. Hala ere, Deba beheko mailara ez jaisteko borrokan dihardu, hortaz, daukaten guztia emango dute.

Debagoieneko II. Triatloia abian da dagoeneko

XABIER URZELAI

Joan den urteko arrakasta ikusita, Debagoieneko Triatloia Taldeak, aurten ere, ibarrean triatloia proba bat antolatzea erabaki du. Lasterketa ekainaren 8an izango da, eta joan den urteko ibilbide bera izango du.

Aurten ere, triatloia proba batekin gozatzeko aukera izango dugu Arrasaten; izan ere, Debagoie-

neko Triatloia Taldeak ibarreko bigarren triatloia proba antolatuko du. Ekainaren 8an izango da.

PROBA ERAKARGARRIA

Aurtengo aldia ere Arrasaten izango da, eta joan den urteko ibilbide berbera izango du. Proba Urkuluko urtegiaren hasiko da, eta 1.500 metro igerian egin eta gero, parte hartzaileek bizikleta hartu eta Arrasate aldera joko dute. Roneotik gora Kanpanzarrerako

bidea hartuko dute, eta Sarako jatetxetik Muxibarreraino jaitsiko dira, eta handik Aramaiora joko dute. Untzilla eta Aretxabaleta igaro ostean -40 kilometro eginda-, Arrasateko kaleetan barrena korrika egin beharko dute (10 kilometro). Ekainean, Sopelako, Zarauzko eta Donostiako triatloiak ere izango dira, eta antolatzaileek uste dute punta-puntako atletak etorriko direla.

Kenci Arrasatek ezin igoera fasean garaipenik erdietsi

XABIER URZELAI

Bihar, zapatua, Calahorra talde errioxarraren kontra jokatu du Arrasateko saskibaloia taldeak. Etxekoek igoera faseko laugarren partidua jokatu dute, eta lehenengo garaipenaren bila kantxaratuko dira.

Joan den astean Beasaingo BKL CAF taldearen kantxan jokatu behar izan zuen Kenci Arrasatek, eta, egia esan, gauzak ez ziren nahi bezain ondo irten. Igoera fasean, orain arte jokaturako partiduetan, etxekoek ez dute punturik eskuratu, baina partiduetan, erakargarriak izateaz gain, berdintasuna izaten zen nagusi.

Joan den zapatuan, berriz, beasaindarrek erakutsitako abileziari esker, arrasatearrek ahal zuten guztia eginda ere, etxean jokatzeko zutenak erraz nagusitu ziren. Batez ere, kanpoko jaurtiketetan erakutsitako abileziaga-


tik. Lehenengo bi laurdenetan BKL CAF taldeko jokalariek azkar, oso azkar, jokatu zuten, eta Kenci Arrasateko jokalariek ez zuten markagailuak erakutsi zuten aldea murrizteko baliabiderik aurkitu.

Hori gutxi balitz, hirugarren laurdenean Jagoba Gamarrak min hartu zuen eta jokatu ezin izan zuten; eta egoera horrekin azken 20 minutuek ez zuten itxura onik.

JOKALARI GUZTIEI AUKERAK EMAN

Norgehiagoka irabaztea ezinezkoa zela ikusita, Iker Zubiria entrenatzaileak azken laurdena aprobetxatu zuen normalean jokatzeko ez duten jokalariei minutuak emateko. Irten berriek, alde txikitzea baino areago, kontrako aldeari eutsi zioten. Beasaindarrek, partidu osoan aurretik joan eta gero, 125-106 nagusitu ziren. Ea bihar Calahorrak zailtasun handiagoak dituen.

FOTOKIROLA



Errugbi taldea, bide onetik

Aurtengo denboraldia ez da Arrasateko errugbi taldeak jokatu duen gaitzena, baina ezin esan taldea egiten ari denak merituak ez daukanik. Joan den astean, Elorrioko taldea esku hutsik bueltatu behar izan zen etxera, eta ez arrasatearrek partidu ona jokatu zutelako, baina bai partiduari eusten jakin zutelako. Etxekoak 10-9 nagusitu ziren, eta oraingo asteburuan ere Zarautzera garaipenaren bila joango dira. Partiduen ostean sagardotegirako bidea hartuko dute, hortaz... /X.U

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumspor.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

ELKARRIZKETA

IBAN GALÁN/ KARATEKA

“Ez nuke sekula uste izango hirugarren geratuko nintzenik”

XABIER URZELAI

Hamasei urteko gazte arrasatear hau Albaceten jokatu den Espainiako Txapelketan izan berri da. Kadete mailan aritu da, eta hirugarren izan da. Ilusio handiz joan bazen ere, ez zuen emaitza hori espero. Zorionak!

Zein helbururekin joan zinen Espainiako Txapelketara?

Lehenengo aldia zen horrelako txapelketa baten parte hartzen nuela eta, gauza berriak ikasteaz gain, ahalik eta ondoen borrokatzea zen nire helburua.

Espero zenuen hirugarren geratzea?

Ez, karateka asko geunden, eta selekzio batzuetako karatekak benetan indartsuak ziren. Asturiasko eta Madrilgo karateken kontra neurtu behar izan nituen indarrak, eta, agian, horiek dira bi selekzio hoberenak. Asturiaskoari irabazi egin nion, baina Madrilgoa, Txapelduna izan zena, beste maila baten zegoen.

Zenbat borrokaldi egin zenuen guztira?

Lehena Asturiasko karateka baten kontra jokatu nuen eta irabazi egin nion. Bigarren borrokaldian madrildarra tokatu zitzaidan, eta banekien oso indartsua zela. Urduri nengoen, eta irabazi egin zidan. Gero, beste hiru borrokaldi egin nituen, eta bat galduz gero kanporatu egingo ninduten. Zorionez hirurak irabazi nituen, eta hirugarren sailkatu nintzen.

Aurkariak uste zenuena baino maila altuagoa zeukaten?

Ez. Hasieratik argi utzi zigten txapelketan izango ziren karateka batzuk oso maila altukoak izango zirela, eta, alde horretatik, ez zen sorpresarik izan. Bagenean zer aurkituko genuen han.

Zein izango da hurrengo helburua?

Helburu nagusia, datorren urtean ere Espainiako Txapelketan izateko sailkatzea; hori lortzen badut, ahaleginduko naiz orain lortutako postua hobetzen.

Arrasaten karateak badauka harrobirik?

Bai. Nire adineko hainbat karatekak gogor dihardute entrenatzen, eta, horrez gain, gaztetxo asko ikusten ditut ilusio eta gogo handiarekin kirol hau egiten; hortaz, harrobirik ez da falta.

Gogorra da lehiatzeko sasoiari egotea?

Bai, batez ere, txapelketa baterako prestatu behar denean. Adibidez, nire kasuan, hau da, 60 kilotik beherakoetan lehiatzeko, bi kilo galdutako behar izan nituen, eta dieta asko zaindu behar izan



ARRASATE PRESS

“Karatearekin zeure burua defendatzen ikasten duzu eta egoera batzuei hobeto egiten diezu aurre”

nuen. Gero, asko nabaritzen da, azkarrago zaude-eta.

Zenbateraino izaten dituzu entrenamendu saioak?

Txapelketarik ez dagoenean, astean hirutan izaten ditugu entrenamenduak. Txapelketa baterako prestatzen garenean, aldiz, egunero entrenatzen gara.

Zer dauka karateak beste kirolek ez dutena?

Eguneroko bizitzarako lagungarria dela. Karatearekin zeure burua gehiago menperatzen duzu. Gertaera batzuen aurrean zelan jokatu ikasten duzu eta, horrez gain, zeure burua hobeto defendatzeko gai zara.

Karateaz gain, atsegin duzun beste kirolik?

Kirol asko ditut gustuko, bai-

“Karateaz gain beste kirol bat aukeratu beharko banu, boxeoa aukeratuko nuke”

na karateaz gain beste kirolen bat aukeratu beharko banu, boxeoa aukeratuko nuke. Gure familian osabek kirol hau egiten zuten, eta gustatuko litzaidake boxeoa egiten ikastea. Orain ez daukat horretarako astirik, baina egunen baten osabei kirol hori irakasteko eskatuko diet.

Karatea egiteagatik zerbait alde batera utzi behar izaten duzu?

Ez. Nahiz eta karatea egin, lagunekin nahi beste izaten naiz. Gainera, koadrilako batzuek ere karatea egiten dute. Proba bereziren baterako prestatzen naizenez, berriz, gauetan ez naiz irteten, eta, egia esan behar badut, horrek amorru apur bat ematen dit.

SASKIBALOIA

Kenci Arrasateren Gabonetako zozketako sarituak 'Goienasport' saioan

Gabonak atzean utzi baditugu ere, Kenci Arrasate saskibaloitaldeak Gabonetako zozketa egin zuen GOITBko *Goienasport* saioan. Horretarako, Julen Iriondo saioko aurkezleak Eneko Gorostidi gonbidatu zuen saiora, eta, azken partiduen inguruan mintzatzeaz gain, saskibaloiko Gabonetako zozketa egin zuten.

Aurtengo sarituak Garikoitz Ibartzabal, Onintza González eta Luisi Azpiazu izan dira, hirurak ere Kenci Arrasate saskibaloitaldeko bazkideak; hortaz, zorionak hirurei. Oraindik Kenci Arrasateko bazkide ez denak, eta izan gura duenak, 20-30 euro ordaindu besterik ez du. Astean barrena Iturripera joatea besterik ez duzue.

GIMNASIA

Arrasate Dragoi gimnasia taldekoek Bergaran izango dute lehenengo proba

Gimnasiako eskolak irailan hasi baziren ere, txapelketen ordua iritsi da, eta Arrasateko gimnastek oraingo asteburuan izango dute aurreneko proba, Bergaran. Txapelketa horretan A mailako gimnastak izango dira, eta alebin, infantil eta gazte mailako gimnastek hartuko dute parte.

Zapatuan Bergaran jokatu den txapelketan Arrasate Dragoi gimnasia taldeko hamabi gimnasta izango dira. Alebin mailan sei gimnasta izango dira eta probak bakarka eta taldeka jokatuko dituzte. Infantil mailan Arrasateko ordezkaririk bakarrik izango du, eta gazte mailan, beste bost gimnasta izango dira Arrasate ordezkatzen. Hurrengo proba ere Bergaran izango da, baina beste maila bateko gimnastek hartuko dute parte.

IGERIKETA

Urtero egiten diren garbiketak direla eta, otsail hasieran igerilekua itxi egingo dute

AUKEA kirol erakundeak aditzera eman digunez, otsailaren 4tik 10era bitartean, Musakolako kiroldegiko igerilekua itxita egongo da, urteroko garbiketa lanak egin behar dituzte-eta.

Hala ere, sendagilearen gomendioz, osasun kontuak direla medio, igerilekua erabili behar dutenek egun horietan Aretxabaletako igerilekua erabili ahal izango dute. Era berean, hainbat mantentze lan egin ahal izateko, sauna eta lurrun bainua ere otsaileko lehen aste horretan itxita egongo dira.

Informazio gehiago nahi duenak Musakolako kiroldegira deitzea besterik ez du (943 771677), edo, bestela, astean barrena, kiroldegiko bulegoetatik pasatu eta argibide guztiak emango zaizkio hantxe.

Arrasateko pilotariak, hiru txapelketetan buru-belarri

XABIER URZELAI

Arrasateko pilotariak San Juanetako, Udaberriko eta Debarroko txapelketetan ari dira buru-belarri. San Juanetako herri txapelketa bada ere, entrenamendu gisa bikain datorkie; beste txapelketek, ordea, pisu handiagoa daukate.

Joan den martitzenean, etxeko pilotariak San Juanetako Txapelketako partiduak jokatu zituzten. Txapelketa horretan gazte mailako pilotariak senior mailakoekin batera jokatuko dute; Mauri Zubillaga entrenatzailearen ustez, gazte mailako pilotariak ongi etorriko zaie nagusien aurka jokatzea.

San Juanetako Txapelketa lau t'erdia barruan jokatuko dute, eta, aste honetan, partiduak astelehen eta martitzenean jokatu dituzte. Astelehen arratsaldean, Errasti eta Zuazua aritu ziren, eta Errasti nagusitu zen (22-6). Mar-

titzenean, berriz, bi partidu izan ziren: Zugastik Osinagaren kontra neurtu zituen indarrak, eta Zugasti nagusitu zen (22-8). Gero, Lazkanok eta Uribarrenek jokatuko zuten, eta Lazkanok irabazi zuen (22-13).

ASTEBURUAN, UDABERRI TXAPELKETA

Oraingo asteburuan, etxeko pilotariak kanpoan jokatu beharko dituzte Udaberri Txapelketako pilota partiduak. Senior mailako pilotariak Urretxura joan beharko dute bertako pilotarien kontra indarrak neurtzeko. Gazte mailako pilotariak, berriz, Beasainera joan beharko dute zapatuan, Udaberri Txapelketako partiduak jokatuzera.

Azkenik, oraingo astean etxeko pilotariak Debarroko Txapelketan atsedean izan badute ere, datorren astean, eguaztenean, Eskoriatzako pilotarien kontra neurtu beharko dituzte indarrak. Partiduak Uarkapen izango dira, arratsaldeko zazpikatik aurrera.



JULEN IRIONDO

Mondrak bolada onari eusteko asmoa agertu zuen zapatuan, eta bost gol egin zizkion Intxurreri.

FUTBOLA

Bost eta huts irabazi eta gero, Mondra taldea liderraren bila

Denboraldiko partidu garrantzitsuenetako bat jokatu du Mondrak Seguraren zelaietan

XABIER URZELAI

Bolada ikusgarri hau luzerako izango den itxaropenaz joango dira Mondrako jokalariek Seguraren zelaira. Arrasateko jarraitzaileak ere izango dira.

Oraingo asteburuan, Mondrak denboraldiko partidu garrantzitsuenetako bat jokatu du. Aurkaria ez da nolanhikoa izango:

liderra, Segura. Arrasatearrek partidua irabazten badute, hiru puntu baino askoz gehiago ekarriko dituzte bueltan, eta joan den astean lortutako emaitzak asko laguntzen du.

Taldeak konfiantza handia dauka, badakite goian egon gura badute eurek egin beharko dutela bultza, eta maila horretako edozein taldek ez daukala ezer egiterik etxekoan kontra. Baina hori

zelaian erakutsi behar da, joan den zapatuan egin zuten moduan. Intxurre punturen bat urratzeko asmoz etorri zen, baina esku hutsik eta atean jasotako bost golekin bueltatu ziren etxera.

Asier Gonzálezek egun biritan izan zuen, hiru gol egin zituen. Baina hori taldearen egoeraren isla besterik ez da. Etxeko taldeak asko eskertuko du Seguraren jarraitzaileak izatea.

FOTOKIROLA



AGR Arrasate 26 BKL CAF 25

Arrasateko eskubaloiko senior mailako lehen taldeak, AGR Arrasatek, justu-justu irabazi zion Beasaingo taldeari. Bernardo Balerdi ez zen gustura azaldu jokalariek eginitako lanarekin, baina puntuak etxean geratu ziren. Etxekoek partiduan 3-4 goleko aldea izan zuten, baina azken minutuetan kanpotarrek estutu egin zuten eta berdintzea ere lortu zuten. Hala ere, etxekoek ondo eutsi zioten partiduari, eta gol bateko aldearekin nagusitu ziren. Bigarren taldeak Bergara liderraren kontra jokatu zuen, eta itxura polita erakutsi bazuen ere, bergararrak 25-18 nagusitu ziren. Goiko postuetan dauden taldeen kontra jokatzeko motibatzen da Arrasateko taldea. /X.U

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

Betrayer - Aurrera Bolie	5-5
Rayo Aldeano - Saukelu Scream	5-2
Chapime Dribling - Bazar Toki On	9-3
Bikain Akad - Fraguél Gol	6-5
Usotz Potroak - Estu Ta Larri	3-6
Iriztu Taberna - Goma2	7-1
Makanaki - Txotx	1-3
Lasagabaster - Maldifa's	13-1
Betrayer - Maldifa's (Atzerat)	13-1

B MULTZOA

Irati STS - Etxerat	5-7
KJ Basati - AC Surcos	3-18
Abocajarro - K.Alpargat	5-5
Full Duplex - AT Celaya	2-5
Azkena YK - D.D.K	6-0
Etxinai - I.K.P	3-5
AKTA - E.G.D	2-3

PARTIDUAK

OTSAILAK 2, ZAPATUA. EPAILEAK

08:50: Estu Ta Larri - Chap Drib. Azkena YK
10:00: Azkena YK - E.G.D. Chap Dribling
11:00: Etxerat - Bin Laden. E.G.D
12:00: AC Surcos - Irati STS. Bin Laden
13:00: KJ Basati - K.Alpargat. Irati STS
14:00: Goma2 - Bikain Akad. KJ Basati
15:00: Full Duplex - I.K.P. Goma2
16:00: Betrayer - Saukelu Scream. Full Dup
17:00: Abocajarro - D.D.K. Saukelu Screea
18:00: Rayo Ald - Fraguél Gol. D.D.K
19:00: Etxinai! - AKTA Rayo Aldeano

OTSAILAK 3, DOMEKA

09:50: Usotz Potroak - Txotx. Iriztu Taber
11:00: Iriztu - Maldifa's. Txotx
12:00: Aur. Bolie - Bazar Toki On. Maldifas
13:00: Makanaki - Lasagabaster. Bazar T.O.
14:00: Irati STS - KJ Basati. Lasagabaster

Atsedena: AT Celaya.

SAILKAPENA

A MULTZOA

1. Bikain Akademia	19 10
2. Chap Dribling	17 10
3. Iriztu Taberna	16 10
4. Goma2	16 10
5. Betrayer	12 10
6. Rayo Aldeano	11 10
7. Usotz Potroak	10 9
8. Lasagabaster	9 10
9. Aurrera Bolie	9 10
10. Estu Ta Larri	8 9
11. Makanaki	7 9
12. Saukelu Scream	6 9
13. Fraguél Gol	5 10
14. Bazar Toki On	5 10
15. Txotx	4 10
16. Maldifa's	2 10

B MULTZOA

1. Azkena You Know	18 10
2. Etxerat	18 9
3. AT Celaya	16 10
4. AC Surcos	13 9
5. I.K.P.	12 9
6. Bin Laden	11 9
7. Irati STS	10 7
8. D.D.K.	9 9
9. Komando Alpargat	7 9
10. Koka Junior Basati	6 8
11. E.G.D.	6 9
12. Abocajarro	5 10
13. Full Duplex	2 9
14. AKTA	2 10
15. Etxinai!	1 9

JIPOI BAT BAINO GEHIAGO

MALDIFA'S ETA KOKA JUNIOR BASATIK, ASTEBURU BELTZA

Joan den asteburuan, bi talde horiek ez ziren oso fin ibili. AC Surcos taldeak 18 gol egin zizkion KJ Basati taldeari. Egundik bat edozeinek izaten du, baina Maldifa's taldearena larriagoa da. Asteburuan bi partidu jokatu ditu. Lasagabaster taldearen kontra 13-1 galdu zuen, eta Betrayer-en kontra beste horrenbeste, hau da, 13-1.

IRATI STS-KJ BASATI. ATZERATUTAKO PARTIDUA JOKATUKO DUTE

Bi talde hauek adi egon beharko dute oraingo asteburuan, izan ere, jardunaldiko partidua jokatzeko gain, atzeratutako partidu bat ere jokatu behar dute. Bi taldeek zapatu eguerdian jokatu beharko dute asteburuko lehen partidua, eta bigarrena domekan izango dute, arratsaldeko ordu bietan.

KIROLAGENDA

**JOKATZEKOAK
FUTBOLA**

Mondra - Ilintxa
Neskak. Zapatuan, 15:45. Atxabalpen.
Segura - Mondra
Erregionala. Zapatuan, 17:15. Seguran.
Uroia - Mondra
Ohor. gazteak. Zapatuan, 18:00. Urolan.
Danena - Arrasate
2. gazteak. Domekan, 16:00. Kanpoan.
Antiguoko - Arrasate
Infantilak. Zapatuan, 10:00. Donostian.

SASKIBALOA

Kenci Arrasate - Calahorra
Seniorrak. Zapatuan, 18:00. Iturripen.
Kenci Arrasate - Deportes Gonzalez
23 urteik behe. Zapatuan, 16:00. Musakolan.
CD Internacional - Kenci Arrasate
Junior mut. Zapatuan, 12:00. Kanpoan.
Kenci Arrasate - Aldapeta
Junior neska. Zapatuan, 10:00. Musakolan.

ESKUBALOA

Aierru - AGR Arrasate
Seniorrak. Zapatuan, 17:30. Lezon.

Arrasate - Leitzaran
2. seniorrak. Domekan. 11:30. Musakolan.
Leitzaran - Arrasate
Gazteak. Zapatuan, 17:30. Andoainean.

ERRUGBIA

Zarautz - Arrasate
Seniorrak. Zapatuan, 16:30. Zarautzen.

EMAITZAK

FUTBOLA

Erregionala: Mondra - Intxurre	5-0
Ohor. gazte maila: Mondra - Hernani	5-1
2. mailako gazteak: Arrasate - Amaro	1-3
Ohor. kadeteak: ST Tomas L - Arrasate	3-0
Infantilak: Arrasate - Tolosa	2-1
Neskak: Eibartarrak - Mondra	0-1

SASKIBALOA

Seniorrak

Kenci Arrasate - BKL CAF	125-106
--------------------------	---------

Juniorrak (mutilak)

Iraurgi - Kenci Arrasate	83-30
--------------------------	-------

Juniorrak (neskak)

Kenci Arrasate - Goierri K.E.	20-29
-------------------------------	-------

Kadeteak

Kenci Arrasate - Tolosa	104-36
-------------------------	--------

Etxeko konponketak

Aroztegia

Armairuak, hormako armairuak,
ateak, oholtzak, leihoak etab.



**AROSZTEGIA
LAGUN**

Garagartza auzoa, 5-2.
(Bixiena Baserría) • ARRASATE
Tel.: 943 77 02 43
Mugikorra: 608 77 40 83

Markoalde, 5-7 • BERGARA
Tel.: 943 76 08 10

Igeltzaritza



Izcue Irurzun

Igeltzaritza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

Leihoak



ARGI PLASTIK

PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola, 1- Pab.
Tel./ Faxe.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Elektrizitatea

ARANZABAL

KOOP. E.

Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak

Zerkaosteta, 15

Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Iturgintza

Aretxabaleta

Durana, 16 behea (Aretxabaleta)

Tel.: 943 79 17 53

ION LEIHOAK



PVC • Aluminioa RPT
Poliuretanoa • Bitarikoak

Ateak • Zoluak

Kanpantorpea, 2-behea • ARRASATE

Tel./Faxe.: 943 79 11 35



ARRASATE

Elektrizitatea

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak
24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77

Gipuzkoa etor., 37 • Tel.: 943 79 65 93



Loramendi 7, 2 behea
Tel.: 943 77 08 88

**Iturgintza • Bainuak
Gasa • Berogailuak**

Giltzak



• Zerrailagintza • Giltzen kopiak • Zapata eta
aterkin konponketa • Artazi, laban eta abarren
salmenta eta zorrozketak • Larruzko gauzak
• Pantografo bidezko grabaketa

Eroski merkataritza zentroa, 1
Tel./Fax: 943 79 76 03

Margoak

APAIN

MARGO ETA APAINKETA

Matiena, 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea, 39 behea • Tel.: 943 77 01 85

Txorrota

Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

Jovi

10.000 KOLORETAKO MENUA

Ferrerias, 36 behea • Tel.: 943 79 12 87

Gida honetan azaldu nahi baduzu,
deitu 943 71 23 91 telefonora

Eraikuntzak

Berecibar

Santamaina, 34 • Tel.: 943 79 09 63



SANTA AGEDA KORUE

Aspalditik, lagun talde handia elkartzten da bezperan, abestu, dirua batu eta ondo pasatzeko.

Santa Agedako tradizioak gogor dirau Mondragoen

Santa Ageda Korue abestera eta dirua batzera irtengo da

IKER BARANDIARAN

Urtero egiten duten moduan, eta tradizioari eutsiz, otsailaren 4an, Santa Ageda bezperan, kantuan eta eskean irtengo da Santa Ageda Korue. Arrasateko kale, auzo eta ikastetxe guztietan barrena ibiliko dira, helburu duin baten alde.

Urte asko dira, ugari, Arrasaten otsailaren 4an Santa Ageda bezpera eguna ospatzen dutela. Aspaldi, Arrasateko lagun talde bat elkartu, baserritar jantzi eta Santa Agedaren kantua eta beste herri abesti batzuk kantatzera irten zen kalera eta auzoetara. Ordutik hona, ez diote tradizio horri utzi.

Ohitura polit hori batzuek alde batera utzi badute ere, berriak edo gazteagoak sartu eta urtero-urtero hitzordua betetzen du lagun talde batek. Tradizioa berreskuratu eta eguna alaitzeaz gain, beste herri batzuetan ez bezala, Arrasaten, jasotako diru guztia eman egiten dute. Aspaldi, 60ko hamarkadako bukaera eta 70eko hamarkadako hasiera bitartean, Arrasateko Ospitale Zaharrari ematen zioten dirua. Gerora, behin Ospitale Zaharra itxi eta gero, Caritas Parroquial elkarteari ematen diote, eta herriko osasungintzarako bideratzen dute.

Iaz, 1.190.000 pezeta batu zituzten (7.152 euro). Eta aurten ere, antzeko kopurua jasoko dute. Hala espero dugu, behintzat.

Gutxi gorabehera, urtero

berrogei bat lagun batzen dira, gehienak Goikobaluko edo Parrokiako Koruko partaideak, baina bestelakoak ere ibiltzen dira: "Iaz, jende gehiago ibilginen, baina domeka izan zen. Astegunetan, ordea, jende gutxiago ibiltzen gara, berrogei bat-edo", kontatu zigun Jesus Mari Zabalak, Santa Ageda Koruko partaideak.

EGUN OSOA KANTUAN

Santa Ageda Koruko partaideek urterokoari eutsiko diote, jakina. Hain zuzen ere, otsailaren 4an, 08:00etan, San Juan Bautista parrokiaren meza izango dute. Eta meza entzun ondoren, bi taldetan banatuko dira: batzuek Musakola aldera joko dute, eta besteek Bedoñarantz. Mondragoeko kale eta auzo guztietan barrena abestu eta dirua batu ondoren, 13:00etan, Udaletxera joango dira, abestera. Atsedenditxoa behar izango dutenez, 14:00etan, Leintz elkartearen Roberto Beltránek eta Valentin Morenok prestatutako bazkari goxoa dastatuko dute.

Bazkaldu bezain laster, bi taldetan banatuko dira berriro ere: bata, herriko eskola guztietara, eta bestea, Garagartza eta Gesalibar aldera. 19:00ak aldera, Monte tabernan topo egin eta egunari bukaera emango diote, ia ahots barik.

Denak baserritar jantzita joango dira, blusa, txapela, mahoizko praka eta abarka edo botekin. Gehienak abeslariak eta poltsa daramatenak, baina eurekin batera, gaitariak, txistulariak eta akordeoilari bana joango dira, kantuei musika eta

doinua jartzeko.

Arrasatearrek, orokorrean, oso gustura hartzen dituzte Santa Ageda Koruaren kantuak eta bisita. Gainera, herri kantuak entzuteko aukera polita izaten da: besteak beste, *Santa Ageda deuna*, koplak, *Nere kristauak*, *Hombres de fè*, *L'Ampurdá*, *Elurra teilatuan*, *Boga-boga*, eta abar. Ahots onak, zalantza barik, eta gainera, euskaraz, gaztelaniaz zein katalanez. Jendeak ondo hartzen ditu, jasotako dirua ez da gutxi-eta. Iazko 1.190.000 pezetak, esaterako, hala frogatzen dute.

Horrez gain, baserri edo etxe batzuetan, diruaz gain, arrautzak eta txorizoak ere eskaintzen dizkiete, indarrak berreskuratzeko-edo.

Eguna oso ondo pasatzen dutela onartu digute Santa Ageda Koruko partaideek. "Gustura kantatu, jendea pozik ikusi, beste batzuei laguntzeko dirua batu... Egun ederra da".

Prestaketa lanak ere ez ei dira hain gogorrak: "Aurrez entseguren bat edo beste egiten dugu, ahotsak probatzeko eta zenbat jende joango garen aurrez ikusteko. Eta azkeneko bi egunetan-edo, ahotsa zaintzen ahalgintzen gara, egun osoa kantuan igarotzen dugu-eta".

Kezkatzen dituen gauza bakarra parte hartzea da: "Berrogei bat lagunek hartzen dugu parte, gehienak gizonak, baina emakumeak ere badaude. Hala ere, adinaren batez bestekoa berrogei urtetik gorakoa da, eta gazteei deialdia egiten diegu anima daitezen".

KULTURAPILULAK

Udaleko Kultura Sailak eguenetako zineklub programa antolatzeari ekin dio berriro ere

Amaia Udal Antzokia eraberritu, eta dagoeneko, hainbat ekitaldi antolatzen hasi da Udaleko Kultura Saila. Horien artean, aspalditik eguenero antolatu izan duten zineklub programa abiaraziko dute, arrasatear eta debagoiendar askoren gozamenarako. Joan den egunean, Stephen Frears-en *Liam* filma eman zuten. Aste honetatik aurrera, ordea, Esther Bronenborn-en *Alaska De*, Alejandro González-en *Amores Perros*, Alan Rudolph-en *Trixie*, eta, azkenik, *Visionarios*.

Abian da dagoeneko aurtengo martxoaren 8ko kartel lehiaketa

Aurreko lau urteetan moduan, aurten ere, Udaleko Emakume Sailak martxoaren 8rako kartel lehiaketa antolatu du. Aurtengo lehiaketa *Martxoak8: zurea, nire, denona!* izango da, hortaz, hori derrigorez agertu beharko da kartelean. Tamaina, berriz, 50 x 70 cm izan beharko da, eta lanak otsailaren 18a baino lehen eraman beharko dira Udaleko Emakume Sailera. Kartel lehiaketaren irabazleak 750 euro jasoko ditu.

Udaleko Gazteria Sailak eta Txalaparta Taldeak txalaparta ikastaroa prestatu dute

Udaleko Gazteria Sailak eta Arrasateko Txalaparta Taldeak, lan-kidetzan, txalaparta ikastaroa antolatzea erabaki dute. Aurreko urteetan moduan, aurten ere, Musakolako saloian egingo dituzte hastapen eta sakontze mailak. Otsailaren 15etik maiatzaren 17ra arte ikasiko dute txalaparta jotzen. Egubakoitzetan, 20:00etatik 22:00etara eta zapatuetan, 11:00etatik 12:00etara. Matrikula hamazortzi euro izango da (3.000 pezeta). Hamabi euro (2.000 pezeta) ikasle eta langabeendako. Interesatuak izena eman dezatela Gazte Bulegoan.



IKER BARANDIARAN

Zuri-beltzeko lan honek, Rosi Otaduienak, jaso du lehen saria.

Rosi Otadui irabazi du Aratusteen kartel lehiaketa

IKER BARANDIARAN

Udaleko Kultura Sailak antolatu duen Aratusteen kartel lehiaketara hogeita lau lan aurkeztu dituzte. Horietatik, hamabi nagusien mailan, eta beste horrenbeste txikienean. Guztiak koloretan, bat izan ezik, Rosi Otadui *Katanga*-k egina. Eta azken horrek, zuri-beltzean egina dagoenak, irabazi du lehen saria. Hortaz, Rosi Otadui jaso du 360,61 euroko saria. Rosi Aratustee-tako hainbat pertsonaia batu, eta guztiak elkartuta paper zuriaren gainean margotu ditu.

Beste finalisten artean, Xabier Elgezabal eta Gorka Zubizarreta daude. Horiek lan koloretan egindakoak egin dituzte. Lehenik, Veneziako maskaretan oinarritu du eskuz egindako lana, eta besteak, pailazo baten oinarrituta, ordenagailuz landu du kartela.

Gaiei dagokienez, lan askotan pailazoak izan dira protagonista, eta euroa ere agertu da, baita herensugea ere. Lanetako asko, gainera, ordenagailuz egin dituzte. Antolatzaileen esanetan, oso maila altua egon da, orokorrean.

E, TXO!

GAZTETXEKOEK, TXOTXI!

AGAKOk sagardotegira irteera antolatu du martxoaren 2rako. Goizean irtengo dira, sagardotegi baten bazkalduko dute eta iluntzerako bueltan izango dira Mondragoen. Iragarritako eguna urrun badago ere, izenematea berehala egin beharko da; hain zuzen ere, otsailaren 1ean edo 8an, 22:30ean, gaztetxean egin ohi den batzarrean. Bestalde, izena emateko unean, mila pezetako fidantza ordaindu beharko da. Interesatuok, jo dagokion egunean eta orduan gaztetxera.

TXATXILI, BEGIRALE BILA

Txatxilipurdik urtean barrena antolatzen dituen ekintzetarako begirale taldea osatu gura du. Interesatuok jo dezatela lehenbailehen elkarteak Pablo Uranga kaleko 4.enean duen egoitzara edo dei dezatela 943 795446 telefonora.

MUSIKA GAZTETXEAN

Bihar, zapatua, 22:00etan, metal estiloko kontzertua emango dute gaztetxean Humus eta Spezial Guest taldeek. Datozen egunetarako beste kontzertu batzuk ere prestatzen dabilta.

DANTZA DOMEKETAN

AGAKOkoek ez dute atsedetik hartu nahi, eta otsail bukaeratik aurrera Arin-arin, Fandango eta beste dantza batzuen ikastaroa antolatuko dute domeketan. Laster, informazio gehiago!

ANTZEZLAN UMORETSUA

Otsailaren 10ean, domekan, 18:30ean, futbolaren alternatiba gisa, Iruñeko Matxin artista ekarriko dute gaztetxera. Matxinek *Ni neu naiz* lana eskainiko du, eta mimo, *klown* eta antzerki umoretsua tartekatuko ditu.

GUREGAIK/ JOKO-ARETOAK

Gaztetxo askoren topagune eta aisialdi leku kuttunak

IKER BARANDIARAN

Ez dugu uste egungo gazte gehientsuenak ludopatak izango direnik, ezta antzekorik ere. Baina argi dago lagunekin batu eta aisialdia igarotzeko leku kuttunak direla joko-aretoak eurendako.

Iraganean umeek eta gaztetxoek kalean batu eta jolasteko joera handia zuten arren, ezagun da kalean geroago eta ume eta gaztetxo gutxiago ibiltzen dela egonean egon edo jolasean. Ziur, gerora, tabernetan egoteko asti nahikoa izango dutela, edo, bestela, euren aisialdia antolatzen ikasiko dutela.

Hala ere, gazteak aurkitzeko beste gune finko bat joko-areto-

Ohiko futbolin, billar, petako eta abarrez gain, futbol, lasterketa eta bestelakoak daude

ak dira. Arrasaten, iraganean, gehiago egon ziren, baina gaur egun, pare bat daude: bata, betikoa, Musakolan, eta bestea, Zaru-galde kalean.

MAKINAK, ERABERRITUTA

Joko-aretoetan, ohiko futbolin, billar, *petako* eta *marzianitoen*



IKER BARANDIARAN

Gazte ugari, aisialdian, joko-aretoetan batzen da.

makinez gain, futbol, auto lasterketa eta bestelako makina elektronikoko ugari aurki daiteke, bes-

teak beste. Horrez gain, gaztetxoek hain gustuko dituzten litxarrerriak ere eskuragai dituzte.

LOTSABARIK/ Amaia Txabarri

“Arrasateri gazte sanoagoak falta zaizkio”

IKER BARANDIARAN

Amaiak oso gustuko du margolanak egitea, baita saskibaloia ere. Ikasten dabilen arren, lagunekin egoteko denbora nahikoa hartzen du. Argi dagoena da lotsa handirik ez daukala.

• Txikitari, zer izan nahi zenuen?

Mediku. Txikitari, anai batek *Superman* izan nahi zuen, nagusiak suhiltzaile eta ni mediku. Etxeak su hartuko balu, bakoitzak zeregin bat izango luke. Horrela geneukan planteatuta.

• Zelan ikusten duzu zeure burua hemendik 20 urtera?

Ez dakit. Behintzat etxetik kanpo bai. Lanean, neure kasa bizi izaten eta oso pozik..

• Adin ideala, zure ustez?

Orain ondo nago. Ez nuke aldatuko. Dagoeneko gurasoek ez naute askorik mugatzen eta, gainera, oraindik gaztea naiz.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Lagunei eta familiari.

• Eta zerk ematen dizu lotsa?

Gauza gutxi. Agian, nire ahotza grabatzeak eta neuri argazkiak ateratzeak.

• Zerk arduratzen zaitu gehien?

Euskarak. Jendeak euskararekiko daukan jarrera eskasak. Jendeak ardura duela dio, baina

ez du erabiltzen.

• Zer falta zaio Arrasateri gazteendako?

Lokalak eta jende sanoagoa. Arrasaten jendeak asko kritikatzten du.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Dena. Adibidez, aurpegia, pekap dituelako.

• Arrasaten ligatzen da?

Arrasatekoekin ez. Jendeak berba asko egiten du eta gero gehiago lotsatzen da. Kanpoan errazagoa izaten da.

• Jendeari, zeri bötatzen diozu begia lehenengo?

Zeri baino, ea pertsona alaia den edo ez, horri erreparatzen diot.



ADINA: 18 urte • **IKASKETAK:** Goi Batxilergoko bigarren maila • **ZALETASUNAK:** Margolanak egitea eta saskibaloia
LIBURU BAT: 'Gizona bere bakardadean' • **FILM BAT:** 'Spy Game' • **MUSIKA TALDEA:** Denetik entzuten dut • **KIROL TALDEA:** Reala

Logo for EGUZKI GRAF with text: KOOP. E. S.COOP. EGUZKI GRAF imprimategia ARETXABAETA. Address: Industrialdea E-0-4. Tfn: 791844. Fax: 792941.

Logo for Txitxinpe. Text: Berezitasunak, Kazuelatxoak, Otarteko hotz eta beroak. Arrasate pasealekua, 33. ARRASATE Tel.: 943 79 67 76.

Logo for CLUB IYOLA. Text: Elgetara bidea, BERGARA, 943 76 11 29.

BEHEKO DENDATIK

Miren Gallastegi Zeziaga

ZARRAOA DENDAKUE

XABIER URZELAI

Mirenek hamabost bat urte daroie dendan lanien, eta ikasketak be lanbide horretara bideratu zittuen, Estetika ikesi euen-eta. Ordutik hona ikastaro batzuk egin ditu, hortaz, lanbidiek sekretu gutxi dauko harendako. Gazteleraz hobeto egitten dauen arren, elkarrizketie euskeraz egin dogu.

Amets bat?

Trankil bizi izetie.

Amets txar bat?

Ez dauket amets txarrik.

Egin dozun azken biajie?

Pirinioetara, udan.

Txartel horixe, zeinei?

Politikuei.

Eta gorrixerik?

Hori be eurei.

Pelikula bat? Liburu bat?

Disko bat?

El paciente inglés / El señor de la guerra / Jazza gustetan jat.

Drogak legalizauko zittukie?

Erantzun gatxe da. Legalizauko nittuke, baiñe ez dakit zelan.

Eta prostituziñue?

Hori be bai.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Tabernetako txikiteue.

Ze gustetan jatzu Mondraguetik?

Inguruek.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Erdikaldeko aparkalekuen arazue edo...

Eta lehendakari izengo bazitze?

Ez dot gure lanpostu hori.

Etxeko zapatillek ala zapatak?

Etxeko zapatillek.

Ezagutu dozun pertsona interesante bat.

Ez jat inor etorten burura.

Eta ezagutu nahiko zeunkeena?

Bereziki inor be ez.

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeinek?

Ez dakit, ez jat sekule burutik pasau.



"Telebisiñue geruago eta gutxiago ikusten dot, geruago eta gutxiago gustetan jat-eta"

Telebisiñoko programa bat? Eta irratikue?

Telebisiñuen emuten dauena geruago eta gutxiago gustetan jat. *Dr. Livingstone supongo* gustetan jaten. *Radio Euskadi* eta *Loiola irratia* entzuten dot.

Zertan gastauko zeunke dirue?

Musikan.

Bizio bat?

Irakurtie.

Hondartza ala mendixe?

Bixek, konbinaute.

Ondo usainketie horren inportantie da?

Baietz esango neuke.

Eta, txarto ez usainketiekin ez da nahikue?

"Pertsona bat ondo jantzitze egoteko, ondo usaindu biher dau. Beste konplemento bat da"

Ez, usain berezi bat eukittiek pertsonia jantzi egitten dau.

Zenbat balixo dau daukeztuen lurrin garestixenak?

60 euro inguru.

Emakumiek ala gizonak sainketan die gehixago?

Emakumiek, baiñe gizonak be apurnaka-apurnaka...

Gabonetako iragarki danekin, ederto salduko zeuen, ala?

Bai, Gabonetan gehixago saltzen da. Olentzerotan produktu poltsak, eta Erregetan koloniak.

Konpetentzia ederra dauketzue oin.

Bai, bai. Hasieran eukiko dau eragiña, nobedadie da-eta. Hala eta be, aurrera egingo dogu.

NIRE BIDAIA HURA / Xabier Elgezabal

Australia, Singapur, Malasia, Indonesia, Tailandia, Tasmania, Zeelanda Berria / 2001ean

Tasmanian hilabete egin eta gero, Zeelanda Berria joateko asmoarekin utzi genuen joan den astean Xabier Elgezabal. Tasmaniatik Zeelanda Berria hegazkinez joatea ezinezkoa da, eta Melbournean joan behar izan zen lehenengo. Zeelanda Berrira iritsi eta Auckland-en Zaragozako neska bat eta mutil ingeles bat ezagutu zituen. Han, autoa alokatzea erabaki zuten, eta haien konpainian ezagutu zuen Xabier Zeelanda Berria. Hasiera batetik argi zeukaten Zeelanda Berriko alde politena hegoaldeko uharteak zela, eta zuzenean hegoaldera joan ziren. Ez ziren damutu. Paraje ikusgarriez inguratuta, izurdeekin igeri egin, glaziarretan ibili, Cook mendiaren parean parakaidismoa egin, eta 130 metrora dagoen teleferikotik *bungy-jumping* egin zuten, besteak beste.

Kirol erakargarri horiez gain, Xabier ez du ahaztu hegoaldeko uharte hartan egin zuen lau eguneko *trekking*-a. Munduko *trekking* erakargarrietakoa, hantxe ikusten diren parajeak ez dira beste inon ikusten: "Askotan ematen zuen fantasiako film baten zeundela, eta paraje haiek ez zirela errealak". *Trekking* horretan, egunean 40 lagunek osatutako talde bat bakarrik irteten da, asko zaintzen dituzte-eta inguruak.

Zeelanda Berriko iparraldeko uharteetan, Rotoruan, su-mendiek, *geyser*-ekin eta naturak eskaintzen dituen beste ehunka bitxikeriarekin gozatzeko aukera izan zuten. Xabieren bi lagunek su-mendi batera jo zuten, baina Xabier ordurako Akilesten orpazurdan min zeukan, eta ezin gora egin. Lesio horrek zortzi hilabeteko bidaia horren amaiera iragarri zuen. Etxera bueltatzeko ordua zen. Egingo du beste bidaiarik.

XABIER URZELAI



Parakaidismoa egin aurretik, Xabier, Cook mendiari ateratako argazkia.

"Zeelanda Berriko parajeak ikusgarriak dira"

"Orpoan min neukan, eta etxera bueltatzeko ordua zen"

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Aretz
Taberna

Markole, 5
943 79 14 67



PEUGEOT

Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

ZAHARRAREN ETXETIK



MAIDER ARREGI

Ederto bazkaldu zuten Uribarriko zahar egoitzan batutako hogeita zortzi lagunek.

Uribarriko zaharren egoitzako 80 urtetik gorakoei omenaldia

IKER BARANDIARAN

Uribarriko zaharren egoitzan omenaldi beroa egin zieten joan den zapatuan 80 urtetik gorako bazkideei. Hasiera baten hogeita hamar lagun elkartu behar ziren arren -kopuru horrek emanda zuen izena aurretik-, bat joan den astean hil zen eta beste bat ez zegoen osasunez oso ondo egunean bertan. Euren eta euren senideei agur bat bidaltzea eskatu ziguten Uribarriko zahar egoitzako arduradunek.

Ezbehar edo arrazoi triste horien erruz, azkenean, hasierako hogeita hamar nagusik beharrean, hogeita zortzi adinduk hartu zuten parte bazkari berezi horretan. Eta, horien artean, hamasei emakume eta hamabi gizonezko batu ziren. Hortaz, esan genezake sexu aldetik nahiko parekatuta egon zirela.

OPARIAK ETA ZAHARRENARI OMENALDIA

Janaria kanpotik ekarri zuten, eta omenduek jakieie emandako egurra ikusita, ederra egongo zen.

Bazkalostean, eta bapo janda, Uribarriko zahar egoitzako arduradunek omenduei opari bana eman zieten. Hain zuzen ere, kolonia, gela eta xaboia zituen kaxa emakumeei, eta after shave potea gizonezkoiei. Uribarri aldeko omenduek oso pozik jaso zuten oparia, jakina. Eta ondo ospatu

Kazetariak ere oparitu zituzten

Joan den zapatuan, Uribarriko egoitzan laurogei urtetik gorakoei egindako omenaldi bazkarian, oso giro polita izan zen. Horren erakusle da Goienatik zahar egoitzara joandako kamera eta kazetari banari, omenduak izango balira bezala, opari kaxa bana eman ziotela. Goienako langileek gustura hartu zituzten opariak, noski.

zuten euren zuzendutako eguna.

Bestalde, Uribarriko egoitzan batutako artean, zaharrenari, Visitacion Lodosari, lore sorta eman zioten. Visitacionek sasoi ona erakutsi zuen, eta lore sorta jasotzean, "Viva Mondragon" oihukatu zuen zirrara handiz. Era berean, guztien artean gazteena ere omendu zuten, laurogei urte egin berri dituen Sara Corcuera, hain zuzen ere.

Bazkaloste berezia izan zuten Uribarriko omenduek; izan ere, Goiena Telebistako kamerekin laurogei urtetik gorakoen irudiak hartu, eta kazetari batek bati baino gehiagori galderak egin zion. Kazetariari behin eta berriro galdetu zioten ea noiz emitituko ziren irudi horiek, senitarrekoei esateko-edo.

Goienako lankideek alde egin eta omenduek izan zuten zertaz berba egin. Egun batez telebista izar bilakatzeaz gain, euren arteko kontuetaz aritu eta hizketaldi politikak izan zituzten. Arratsaldeko bost eta erdiatarako, berriz, gehienak etxera bidean zihoazen.

LABUR

Arrasateko 1958ko kintoek urteko batzarra egingo dute martxoaren 2an

1958ko kintoek -1937an jaiotakoek- batzarra izango dute martxoaren 2an. Egun horretan, meza izango dute San Juan Bautista parrokiaren, 12:30ean, eta gero, txikiteoaren ondoren, bazkaria izango dute Udalpe elkartearen. Interesatuak dei diezaiotela Jose Riviereri (791057) edo Pedro Fernándezi (790248) otsailaren 24a baino lehen. Hamabi euro ordaindu beharko dituzte.

Iturbide egoitzan bizi diren uribarriarrei omenaldia, eta aratusteetan txokolate jana


Joan den zapatuan hasi ziren ekitaldiekin, eta ez dute atseden handirik hartuko Uribarriko zahar egoitzakoek. Datorren astelehenean, Iturbide egoitzan bizi diren uribarriarrei opari bana emango diete, eta aratuste-martitzenean, txokolate jana izango dute Uribarriko egoitzan. Eta baliteke besterik antolatzea ere.

ZAHARREN AHOTIK

Rosalio Zubizarreta

ABAROA ZAHARREN ELKARTEKO PRESIDENTEA

Rosalio 1922ko abenduaren 23an jaio zen, Nafarroako Arribe-Atallun, baina gerora zeharo arrasateartu zaigu, eta askok ezagutzen dute.



Nafarroan jaio baina Mondragoen pasatu dituzu urte gehientsuenak, ezta?

Bai, zazpi urte nituela etorri ginen hona, Nafarroako Arribe-Atallu herritik, aitzak lagunak zeuzkalako hemen. Euskaraz banekien, baina nafarrera egiten nuen, eta hasieran ez nuen hemengoa askorik ulertzen. Biteri Eskolan ikasi nuen, eta ederto moldatu nintzen hemen, baina, hamahiru urterekin, Errepublikara garaian, berriro jo genuen Arribe-Atallura. Gerra denboran, han zegoen gazte bakarrenetarikoa nintzen, hamalau urterekin Udaletxean idazkariaren laguntzaile lana eskuratu nuen. Euskaraz eta gaztelaniaz ondo moldatzen nintzen, Udaletxeokoak gustura zeuden nirekin. Gerora, ordea, hemengo fabriketan ibili zara lanean, ezta?

Bai, 1939. urtean, familia ia osoa Mondragoera bueltatu zen. Ni Union Cerrajeran lanean hasi nintzen, lehergailuak margotzen. Elektrikari ere ibili nintzen, eta, gerora, beste lan batzuetan ere. Hala ere, 60ko hamarkadan, Union Cerrajeratik Amatera jo nuen, eta han erantzukizun handiko lanak bete nituen.

64 urterekin eztarik minbizia antzeman zidaten eta operatu egin ninduten. Urtebete geroago erretiratu, eta Abaroara joaten nintzen billarrean aritzera, eta azkenean presidente egin ninduten. 12 urte daramatzat Abaroan lanean.

CE ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25



Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

gorka ileapaindegia


ordutegia:

asteartetik ostiralera 09.30 - 20.00

larunbatetan 08.00 - 14.00

ferrerias, 35
arrasate

943 77 13 78





ARRASATE
Mainer García
Otsailaren 7an, 3 urte.
Zorionak! Aita eta ama.



ARRASATE
Gaizka Barrena
Otsailaren 5ean, 4 urte.
Zorionak, umezaintzako laguntxoaren partetik.



ARRASATE
Lia Etxagibel
Otsailaren 5ean, 5 urte.
Zorionak, umezaintzako laguntxoaren partetik.



ARRASATE
Naiara Altube
Otsailaren 3an, 24 urte.
Zorionak, txatxiliko lagunen partetik.



ARRASATE
Meri Arroyo
Otsailaren 7an, urtebete-tzea. Zorionak, umezaintzako lagunen partetik.



ARRASATE
Gorka Eraña
Urtarrilaren 29an, 11 urte.
Zorionak, etxekoaren partetik.



ARRASATE
Lerire Eraña
Otsailaren 20an, 9 urte.
Zorionak, etxekoaren partetik.



ARRASATE
Igor Sala
Otsailaren 4an, 24 urte.
Zorionak, artista! TMT.



ARRASATE
Mikel Castillo
Otsailaren 5ean, 25 urte.
Zorionak, kasti! Zure lehen-gusuak.

BABESLEA

Juan Manuel Berrueta
ARGAZKILARIA

GRAN LUJO INDEX **PROMOZIOA**
ZURE ARGAZKIAK HANDIAGO



13X19cm-koak
10X15 cm-ko
prezioan



Kalitate bermea

Iturriotz kalea, 24. ARRASATE. Tel.: 943 79 19 71 / 658 75 58 18

ADI! Hurrengo zenbakian, **otsailaren 1etik 15era** bitartekoan zorion agurrak argitaratuko ditugu. Argazkiak martitzera arte jasoko dira **ARRASATE PRESSEko** egoitzan.



**Zorion itzazu zure lagun
eta senitartekoak.**

Zatoz Arrasate Pressera argazki
batekin eta utzi gure esku!
Otalora lizentziaduna, 31.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

iKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK



SUKALDE ERAKUSKETA Udala Plaza, z/g • Tel.: 943 79 00 43 • BAINU ERAKUSKETA Zarugalde, 52 • Tel.: 943 79 99 42



FAGOR

Txirritola

ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko otsailaren 1a / 14. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna z/g 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com

Santa Ageda bezperan, baserriz baserri kantuan eta eskean

UBANE MADERA

Urtero moduan, otsailaren 5ak Santa Ageda eguna ekarriko digu; eta, jakina, bezpera etxetik eta baserriz baserri koplak kantatu eta diru eske joateko eguna da. Aramaion ere horrela izango da. Zapatuan ospatuko dute egun hori, bai Ibarra baita inguruko zenbait auzotan ere.

Bixente Goikoetxea Abesbatzak egindako deiari jarraituz, hogeitau bat lagun elkartzeko dira

bihar, zapatua, Santa Ageda eskean ibiltzeko. Makilak eta otzarak hartu eta herriko plaza irtegarak dira arratsaldeko ordu bietan. Gero, gaueko bederatzia arte ibiliko dira koplak kantatzen udalerritik zehar. Ohiko kantuekin batera, gainera, Sabin Salaberri aramaioarrak moldatutako koplak ere abestuko dute.

Ibarra auzotik Eguzkierripa auzorainoko ibilbidea egingo dute, eta baserri eta etxe guztietatik pasatuko dira. Herriko trikitalariek lagunduta alaitu-

ko dute giroa.

OHITURA GORDE GURAN

Orain dela urte batzuk hasi zen Bixente Goikoetxea Abesbatza Santa Ageda bezperan kantuan. Helburua zen ohitura hori gordezea. Eta, hain justu, ohitura indartsu gordetzeko, gonbidapen berezia egiten die gainerako herritarrei eurekin batera kantuan egitera joateko.

Zazpi orduz kalerik kafe kantuan ibili eta gero, Zubiondo elkartean batuko dira guztiak, ibilbidean batutako jaki goxoekin afaria egiteko.

Bestalde, eskean batutako diru kopuruaren erdia Caritas-i edo gobernuz kanpoko erakunderen bati emango diote, hark Aramaio herritar behartsuenei emateko. Halaxe egin zuten iaz, eta aurtengoa ere, hala egitea erabaki dute. Eta diruaren beste erdia abesbatzarendako berarendako izango da, elizako organoa konpontzeko dirua eman du eta abesbatzak.

Iaz, Bizente Goikoetxea Abesbatzak 75.000 eta 100.000 pezeta artean eskuratu zituen (450 eta 600 euro artean).

Ibarraz gain, Aramaio beste hiru auzotan ere egingo dute eskea: Azkoagan, Barajuenen eta Uribarrin. Auzo horietan ere zapatuan irtegarak dira.



MARI CARMEN AJASTUI

Ibarra-Eguzkierripa ibilbidea egingo du Santa Ageda abesbatzak zapatuan.



Inauterietan, ipuin lehiaketa

Txirritola Euskara Elkarteak ipuin lehiaketa antolatu du. Aramaion bizi edo ikasten duen edozeinek parte hartu ahal du, eta, betiere, lanak euskaraz eginak eta argitaratu bakoak izan behar dira. Ipuinaren gaia librea izango da eta, gehienez, orri bi izango ditu. Hiru maila izango dira lehiaketan. Sariak mailaren arabera izango dira: Lehen Hezkuntzako 2. zikloa, Lehen Hezkuntzako 3. zikloa eta DBHko lehenengo zikloa. Lanak otsailaren 15a baino lehen eraman behar dira Udaletxera. Sariak otsailaren 23an banatuko dira, kultura etxean, 13:00etan.

HERRITARREN HITZA / Patxi Uribarren • Itzultzaile-idazlea

Kanpoko euskaldun eta bertakoa erdaldun

A benduaren 31 zen. Hartu berri nuen Arrasaterako autobusa. Bat-batean andre gazte zuri bat sartu zen ume beltz bat besoetan zuela. Gazta eta liraina bera, eta hiru edo lau urteko umea. Nire aurreko aulkian adineko emakume bat zegoen. Umea berbatsua izan, eta berehala hasi zen berbetan. Nire harridurarako euskaraz, jariatutasun handiz, jo eta ke, eten ezinean, berba eta berba, aldika-aldika emakume zuritari "ama" deituz.

Halako batean Durangora heldu ginen. Geralekuan neska gazte bi. Bata barrura sartu zen; besteak kanpotik agurtu zuen

adineko emakumea. Sartu berria alboan jarri, eta erdaraz hasi zen. Ez zekien, antza, euskararik. Erdaraz egitera behartu zuen ume beltza atseginez entzuten zetorren adinekoa. Horrela, Arrasatera arte.

Barruan hainbat gogoeta hasi zitzaizkidan pil-pil irakiten, abiada bizian, joan eta etorri! Odoleko alaba ete zen ume beltza? Ala atzerrian alabatzen hartutakoa umezurtza? Noiz eta nola ikasi zuen euskara hain polito?



"Ez da nahikoa udalerrria UEMAn izatea"

Nongoa ete zen, oster, adineko emakumea erdaraz egitera behartu zuen neska zuria?

Behar bada, aurrerantzean kanpotar asko izango dugu gure artean, euskara ikasi, euskaldun bihurtu ta bertako seme-alabak eginik. Ugarituz doaz honelakoak zorionez, gure artean, hemen

jaiotako askok euskara ikasten edo erabiltzen ezer gutxi egiten duten artean. Ba dugu zer itaundu gure buruari. Aramaioa-

rrok ere bai! Ez delako nahikoa udalerrria UEMAn izatea, gero eguneroko bizitzan euskarari benetako lekua egiten ez badiogu.

Bide batez zorianak kanpoko umeak seme-alabatzen hartzeko erabakia hartu duzuen guztioi. Benetan egintza zoragarria, beltzak nahiz zuriak denok Jainkoaren seme-alaba gara-eta! Eskerrik beroenak, batez ere, euskaldun egiten ahalegintzen zaretenoi. Kirikiñok aitaturako "Baltz euskalduna" dator kit gogora. Kanpotarrak euskara ikasten, eta gu, sarri-sarri, txikitatik esku artean dugun altxorraz konturatu barik, parra-parra erdaraz!

LABUR

San Blas, Kandelario eta Santa Ageda mezak

Ospakizun ugari du datorren egunotan Elizak. Zapatuan, Kandelario eguna eta San Blas ospatuko ditu ohiko lekuetan, bai Ibarra baita auzoetan ere. Hortaz, kandelak, San Blas opilak eta bestelakoak bedekintatuko dituzte. Meza berean, katekesiko umeak aurkezpena egingo dute. Eta Santa Ageda egunean, meza izango da 12:00etan. Azkoagako Santa Agedatxo ermitan. Bestalde, datozen bi domeketan, Oletako mezak Euskal Telebistak emango ditu.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zulako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUS ORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
12:00	12:15	13:00
15:20	15:35	16:20
20:30	20:45	
GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:30	09:15	09:30
13:10	13:50	14:05
	17:00	17:15
19:30	20:15	20:30

LABUR

ARETO FUTBOLEKO EMAITZAK
Joan den asteburuan, mutilek jokatu zuten. 4-10 galdu zuten Gasteizko Mesedetakoan kontra. Oraingo asteburuan, kadete mailako mutilek Presentacion de Maria ikastetxearen kontra jokatu dute Gasteizen zapatuan; eta neskek Arezketa Ikastolaren kontra, Amurrion, 12:00etan.

PALETA TXAPELKETA
Aurreko asteburuko emaitzak hauexek dira: Emilio-Xabi 27, Aspe anaiak 35; Abarrategi-Arriolabengoa 35, Nafarrate-Flores 30; Barandiaran ata-semeak 35, Berasaluze-Errasti 11 eta, Azurmendi -Arriolabengoa 35, Amasene anaiak 27. Oraingo asteburuan, honakoek jokatu dute: 09:00etan, Azurmendi-Arriolabengoa Nafarrate-Flores; 10:00etan, Emilio-Xabi, Berasaluze-Errasti; 12:00etan, Abarrategi-Arriolabengoa, Armendariz-Orobengoa; eta, 16:00etan, Barandiaran aita-semeak, Aspe anaiak.

ZINEA
Domekan, 17:00etan, *Como Perros y Gatos* filma izango da.

KULTURA

Kultura elkarteek eta Udaleko ordezkariak bilera egin zuten kultura etxea dela-eta

Kultura elkarteak kutura etxe berrira lekuz aldatu direla-eta, lekualdatze horrek eragindako arazoak aztertzeko batzarra izan zuten martitzenean elkarteek eta Txema Abarrategik, Udaleko Kultura batzordeburuak. Landu zituzten gaien artean, besteak beste, elkarten gela ordutegia luzatzea egon zen. Udalak eskaera aztertuko duela adierazi zien. Edoze-lan ere, jakinarazi zuen laster kultura etxera sartu eta irteteko modu berria ezarriko dutela, eta, horrekin, ordutegiaren arazoa konponduko dutela. Bestalde, elkartei urte osoko kultura egitaraua eskatu zien Txema Abarrategik; horrela, hemendik aurrera, hilero kultura egitaraua egin ahal izango dute Aramaion. Hurrengo batzarra udaberri partean egingo dute.



BOTE PRONTOAN/ Miguel Inuntziaga · Gantzaga auzoko alkatea

“Orain, auzoan beste giro bat ikusten da”

Anboto eta Orixol mendien magalean geratuko gara berriro. Gantzaga auzora jo dugu oraingoan, eta han, Migel Inuntziaga auzo-alkatearekin jardun dugu berbetan. Bizkaitarra da jaiotzez, abadiñoarra; handik Zaldibarrera egin zuen eta gero, Aramaiora. Hogeitaka urte daramatza Gantzagan, Linatza base-rrian, eta auzo hori apurtxo bat ezagutzeko aukera eskaini digu:

Noiztik auzo-alkate?

Orain bi urtetik hona; baina lehendik ere izana naiz auzo-alkate. Txandaka egiten dugu. Orain arte hiruren artean egin izan dugu, baina orain jende gehiago dago; hortaz, aurrerantzean tarte handiagoan behin tokatuko zaigu.

Zenbat lagun zarete auzoan?

33 lagun. 12 etxe daude. Bi baserri bizi dira baserriko

lanetik.
Lehen baino gehiago?
Bai. Igo egin da jendea. Orain dela urte batzuk etxeak egin zituzten, nekazari turismoa ere ipini dute. . . Arrasatearrak etorri dira. Beste etxeren bat egiteko ere bada biltza, eta gu pozik.
Eskertzen da?
Jende asko etortzea ere ez litza-teke ona izango, baina apurtxo bat. . . Ni hona etorri nintzenean, oso etxe gutxi zegoen eta jende gutxi bizi zen, hau ez zen ezer. Orain beste giro bat ikusten da. Eta, asteburuan, jende gehiago etortzen da. Jakina, eta uda partean, orain hutsik dauden etxeak beteta egoten dira.
Zelan deskribatuko zenuke auzoa?
Polita da eta jende asko etortzen da Anbotora igotzeko. Gantzaga-goiko aldea Urkiolako Parke Naturala da. Mendian ibiltzeko



bide asko ditu. Hain justu, auzo-aren goiko aldea, dagoeneko Urkiolako Parke Naturala da. Askotan hartu izan ditugu mendizaleak Izpizte elkartean, base-rrietan. . . Paraje ederrak daude eta jendea ondo hartzen dugu.
Zer du faltan?
Orain, kale argiak ipintzekotan gabilta. Saneamendua egin dugu, gasa sartu dugu, argindarra lur-petik sartzeko hodiak ipini. . . Nahiko ondo gaude. Eskatuta dugu Aramaiorako bidea konpontzea, baina Udalaren aurrekontuen araberak ibili behar. San Millan elizako abadetxea konpondu gura dugu. . .
Eta, Anbototik hain gertu egonda, sorginen bat. . .?
Nik entzunda dut Orixoldik Anbotorako edo Anbototik Orixolera-ko bidea airean egiten ikusi izana (Hau Miguelen emazteak, Ana Marik, kontatu digu).

ALDEDI
MARKO-JARTZEAK

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxes: 943 79 13 84

BASATI
TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
TEL. 943 711769

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99

ERRETRATUZAHARRA

Santa Agedako
koruak, herriko
usadioa

Ikurrinarekin lotutako kontuekin segituko dugu oraingo astean. Baina, oraingo honetan, herrian guztiz errotuta dagoen ohitura bati heltzeko aitzakia moduan: Santa Ageda koruei, hain justu. 1977ko Santa Ageda bezperara jo dugu gure argazkiarekin. Egun hartan, ohiturari jarraituz, Santa Ageda korua kalerik kale ibili zen eskean. Pare bat aste lehenago, ikurrina legezatu zuten, eta hori ezin ahaztu Santa Ageda bezperan. Ikusten den moduan, Ikastolako ume guztiak irten ziren egun hartan Santa Ageda koruarekin. Eta, Santa Barbaran honako argazki hau atera zuten.

Argazkian agertzen diren lagun guztien izenak ez dira sartzen ataltxo honetan; horrela, aurrealdean dagoen taldeko kideenak esango ditugu. Ezkerretik eskumara, zutik, hauexek daude: Etxebarria (txistularia), Julito Iriondo (betaurrekoduna), ezezaguna, Candi Artola, Margarita Gorrotxategi (Ikastolako irakasle bat), Ismael Errasti, Jesus Barrutia (goian dagoe-



na), Angel Ezkurra Galarra (soinujolea), Del Valle, Luis Mari Maidagan, Txarra Bidaburu, Angel Arana (aurrera makurtuta dagoena), Juan Bautista Agirre eta Antton Markaide.

Behean, ezkerretik eskumara, honako hauek daude: Pedro Zumelaga, Juan Mari Oregi eta haren alabatxoa,

ezezaguna (biboteduna), Juanito Zabaleta, Larrañaga (atzeko bizarduna), Juanito Kurri, Eugenio Resusta (soinujolearen azpikoa), Zabala (belzduna), Petreñas (bizarduna), Fernando Cristobal, ezezaguna (betaurrekoduna), Pereda, Kiko (aurrekoa), Jose Antonio Balerdi,

Agustin Ibarluzea Txispas eta Jose Ramon Txori.

Argazkia: Espe Lizarralde
Informazioa: Espe Lizarralde
Urtea: 1977

NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

Umea izan
aurretik
Uribarrira

Uribarri auzoa 1414an sortu zen. Orduan, baserriak eta elizak bakarrik zeuden. Gaur egun Arrasateko auzo bat bada ere, hasiera baten independentea zela esan dezakegu. Uribarriko eliza, Itxaropenaren Andra Maria, 1309an sortu zen. Eliza hori lau aldiz konpondu dute. Estilo gotikoko eliza da, baina atea estilo erromanikokoa da, oso ikusgarria.



± 1935

Diotenez, haurdun zeuden emakumeak eliza horretara joaten ziren, Amabirjinari umea arazo barik jaio zedin eskatzera.



2002

Urte hauetan guztietan eliza auzoarekin batera aldatu da. Elizak itxura polita dauka, baina lehen baino sinestun gutxiago ei dago.

ASESORIA
ARRASATE

- Juridikoa
- Lan arloa
- Fiskala
- Bankinter finantza agentea

Erdiko kale, 32. 1 ezk • ARRASATE
Tel.: 943 79 01 47 Faxa: 943 79 73 00

Fisioterapeuta

Sonia
Boisa Castelao



943 79 53 75
678 61 50 37

Errebuelta, 2 - 3D
ARRASATE

OSORIK
PUB

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

ZUBIZARRETA
LANTEGIAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

LEHEN HEZKUNTZA

HAUR HEZKUNTZA

D
eredua

D.B.H.

HAURTZAINDEGIA
ZERO urtetik
61,00 euro hilean

943 79 27 73

zurekin

La Merced Ikastetxea

MARTXOAK 8KO V. KARTEL LEHIAKETA



2002. urteko martxoaren 8ko leloa
"Martxoak 8 zurea, nirea, denona!!!"
izango da eta horma-irudi
lehiaketaren oinarriak honako
hauek dira:

1. Lehiaketa honetan edozeinek har dezake parte.
2. Kartelen neurriak gehienez 50x70 cm-koak izango dira.
3. Teknika librea izango da.
4. Kartelek derrigorrez testu hau izan beharko dute:
"Martxoak 8 zurea, nirea, denona".
5. Irabazleak 750 euroko saria jasoko du (%20ko PFEZren atxikipena izango du saria).
6. Kartelak, 2002ko otsailaren 18a baino lehen, Udaletxera bidali behar dira, Emakume Sailera.

Tel: 943 79 09 00 / 943 79 41 39



GRUPO **RKUZ** 1950-2002



Arkauz zure etxea da.



Araba etorbidea 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Araba Etorbidea 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55 **FAGOR**



Asuncion, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

